


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

ZUZENBIDEKO GRADUA – 2014-2015 IKASTURTEA

Hizkuntza eskubideak estatuz gaineko European

Egilea: Manex Elortza Larrea

Zuzendaria: Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena

Donostian, 2015eko uztailaren 13an

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ESTATUZ GAINEKO EUROPAN

0. Sarrera	5
1. Hizkuntzen eraentza juridikoa	5
2. Hizkuntzak eta Oinarrizko Eskubideak	10
3. Hizkuntza Eskubideak Europako Kontseiluan	11
3.1. Giza Eskubideen Europako Ituna eta Giza Eskubideen Europako Auzitegia	12
3.2. Hizkuntza Eskubideak Giza Eskubideen Europako Itunean eta Giza Eskubideen Europako Auzitegian.....	15
3.3. Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna	22
3.4. Gutxiengo Nazionalen Babeserako Konbenio Markoa.....	25
4. Hizkuntza Eskubideak Europar Batasunean	27
4.1. Hizkuntza eraentza Europar Batasunean	27
4.1.1. Itunetako hizkuntzak	28
4.1.2. Lanerako hizkuntzak	29
4.1.3. Barne estatus ofiziala duten hizkuntzak	32
4.1.4. Europako Parlamentuaren kasu aipagarria.....	35
4.2. Hizkuntza eskubideak Europar Batasunean	37
4.2.1 Hizkuntza Eskubideak Elkartetako eta Batasuneko printzipio orokor bezala	37
A. Oinarrizko Eskubideak printzipio orokor bezala	38
B. Hizkuntza Eskubideak printzipio orokor bezala	39
4.2.2 Hizkuntza Eskubideak Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean	45
A. Oinarrizko Eskubideak Gutunean	47
B. Hizkuntza Eskubideak Gutunean	48
5. Ondorioak	51
6. Bibliografia	53
7. Jurisprudentzia	57

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK ESTATUZ GAINEKO EUROPAN

0. Sarrera

Egungo Europa 50 estatu inguruk osatzen dute eta bertan 700 milioitik gora pertsonak hitz egiten dituzten 200 hizkuntza baino gehiago daude. Geografikoki eremu nahiko mugatua eta txikia izan arren, oso anitza ere badela esan dezakegu. Hizkuntza alorrean dagoen aniztasun horren gainean European egin den kudeaketa azaltzen ahaleginduko naiz lan honen bitartez, horretarako European azken hamarkadetan aintzatetsitako hizkuntza eskubideak, horien eraentza eta horien baitan emandako jurisprudentzia azalduz.

Horretarako lan hau hiru bloke nagusitan egituratu dut. Lehenik eta behin, hizkuntzen eraentza juridikoa azaldu eta hizkuntza eta oinarritzko eskubideak lotzen dituen sarrera puntuak jorratu ditut.

Honen ostean, Europako Kontseiluari lotuta burututako lana azaltzen saiatu naiz. Batetik, Giza Eskubideen Europako Itunean hizkuntza eskubideei egiten zaien aipamena esplikatu eta horri buruzko Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia esanguratsuen aipatuz. Bestetik, Europar Kontseiluak sinatutako Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren eta Gutxiengo Nazionalen Babeserako Konbenio Markoaren ekarria eta garrantzia ere esplikatzen ahaleginduz.

Azkenik, Europar Batasuneko hizkuntza eskubideei aipua egingo zaie. Bi zati bereizi behar dira hirugarren atal honetan. Bata, Europar Batasuneko hizkuntza eraentza, non, hizkuntza mota ezberdinak bereizi daitezkeen. Bestea, hizkuntza eskubideek Europar Batasunean eduki duten aintzatespena; lehenik, printzipio orokor bezala, eta geroago, aipamen espresuen bidez.

1. Hizkuntzen eraentza juridikoa

Zuzenbidearen ikuspuntutik, Lopez Ramon autorearen esanetan, hizkuntzak “gauza publiko” esparruaren barnean kokatu behar dira. “Gauza publikoak” “ondasun publiko”

kontzeptutik bereizten dituen gizaki guztiena den zerbait izatea da. Ondasun publikoak ordea, Administrazio Publikoarenak dira.¹

Teoria honek dio hizkuntzak ondasun komun ukiezinak direla eta gizakiek eskubidea dutela horiek era mugagabea eta horien sustantzia kalterik eragin gabe erabiltzeko. Gizaki guztioi diskriminaziorik gabeko erabilpen hori bermatzeko Zuzenbideak xedapen ezberdinak ezartzen ditu. Hizkuntzak ondasun gorputz-gabeak izan arren, ezin baiezta daiteke hizkuntzen erabilera horien sustantzia inolako kalterik eragin gabe aurrera eramane daitekeenik, izan ere, hizkuntzaren erabilera txarrak hizkuntza degradatu, txirotu, komunikazio funtzioa kaltetu edota zatikatu eta beste hizkuntza bat sortzea ekar dezake. Hizkuntzak kontzeptu bezala izaera gorputz-gabea dauka, baina hizkuntza bakoitzak edota estandarizatutako hizkuntza sistema bakoitzak banan-banan hartuta gauza komun material batek bezala jarduten du, atmosfera edo itsas urek bezala, erabilera oker eta kontaminazioaren aurka babestu beharreko zerbaitek bezala. Nahiz eta hizkuntzaren titularrak ez izan, administrazio publikoek horrexegatik hartzen dituzten hizkuntzen kontserbazio eta erabilera eskumenak beren gain.²

Zuzenbideak kasu ezberdinetan har dezake parte. Hizkuntza bat ofizial bihurtzeko edo estandarizatzeke eta desagerpenetik urruntzeko parte hartzeaz gain, bi hizkuntza edo gehiagoren artean gatazkaren bat edo bilinguismo asimetriko egoera bat baldin badago eta hizkuntza horietako bat nagusitasun egoeran dagoenen ere parte har dezake.³ Beste kasu batzuetan, eremu berean bi hizkuntza ofizial edo gehiago egoteak bizikidetzaren garrantzia azaleratzen du, zeina hizkuntza gai bat izateaz gain arazo juridiko bat ere baden.⁴

¹ LÓPEZ RAMÓN, F., "Teoría jurídica de las cosas públicas", *Revista de Administración Pública*, 186. zenb., 2011, 14. orria

² IZU BELLOSO, M.J., "Lengua y derechos fundamentales", *El régimen lingüístico de la Comunidad Foral de Navarra*, Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeke Fundazioa, Donostia-San Sebastian, 2013, 64. orri

³ *Ibid.*, (apud. ALCARAZ RAMOS)

⁴ *Ibid.*, (apud. PUIG I SALELLAS)

Botere publikoek hizkuntzen alorrean modu ezberdinean har dezakete parte. Strubell i Truetaren arabera honako hauek aipa daitezke:⁵

- a) Hizkuntzaren normalkuntza edo arauketaren bidezko parte-hartzea.
- b) Erakundeen barne funtzionamenduko eta hiritarrekiko harremanetako hizkuntza erabilpenak arautzen.
- c) Hiritarrek administrazioarekin harremanetan edo harreman pribatu, zibil edo komertzialetan izango duten hizkuntzaren erabilera arautzen.
- d) Komunikabideak sustatuz edo sortuz hizkuntza jakin horretan.
- e) Irakaskuntzan, irakasteko erabiliko diren hizkuntzak ezarriz eta ikasi daitezkeen edo behar diren hizkuntzak hautatuz.
- f) Hizkuntza jakin baten aldeko sustapen neurriak hartuz: sariak, diru-laguntzak, edizioak, etab.
- g) Langile publikoen aukeraketa eta trebatzearen bidez, hizkuntza batean baino gehiagotan jarduteko beraien gaitasuna sustatuz.

Zeregin horiek askotan estatuko edo nazioarteko organismoen esku geratuko dira. Beste askotan, ostera, autoritate eta onarpen sozial nahikoa duten erakundeen menpe geratuko da parte-hartze hori, batez ere, hizkuntzaren estandarizazioa.⁶

1.1. Hizkuntza ofizialak. Hizkuntza erregimen ororen eduki oinarrizkoenetakoa hizkuntza ofizial baten edo gehiagoren ezarpena da. Isilpeko eran bada ere, estatu guztiek daukate hizkuntza ofizial bat edo gehiago. Kasu askotan hizkuntzaren ofizialtasunari aipamena Konstituzioan egiten zaio. Hizkuntza ofiziala existitzeak estandarizatutako hizkuntza baten aurre-existentzia dakar berarekin, oso zaila baita estandarizatu gabeko hizkuntza batek hizkuntza ofizialaren funtzioak betetzea.⁷

Esan bezala, estatu guztiek dute gutxienez hizkuntza ofizial bat, baina horretaz gain, oso arrunta da ofizialkidetasun aldarrikapena, hots, hizkuntza ofizial anitzen bizikidetzeta. Ofizialkidetasuna (edo koofizialtasuna) eremu nazional

⁵ STRUBELL I TRUETA, M., "Política lingüística i Administració", *Revista de Llengua i Dret*, 2. zenb., 1983, 6. orr. eta hurr.

⁶ IZU BELLOSO, M.G., *op.cit.*, 68. orr.

⁷ *Ibid.*

osoan ezar daiteke, edo sarriago gertatzen den bezala, hizkuntza bat eremu nazional osoan izango da ofizial eta gainerakoak ofizialkide eremu mugatuetan.⁸

- 1.2. Hizkuntza nazionala, berezko hizkuntza. Nahiko maiz hizkuntza nazional adierazpidea hizkuntza ofizialen sinonimo gisa erabili ohi da, baina beste batzuetan bere esanahiak elementu ezberdin bat dakar berarekin. Esapidearen jatorria, nazioaren kontzeptu politiko modernoari dago lotuta. Alegia, nazioa hizkuntza berbera duten hiritarrez osatutako komunitate politiko gisa ulertzen da.⁹

Hizkuntza nazional nazionaren muina osatzen duen hizkuntzari esan ohi zaio. Normalena da hizkuntza hori ofiziala eta derrigorrezkoa izatea, estandarizatuta egotea, gehiengoarena izatea eta askotan baita hizkuntza bakarra ere. Hala ere, hizkuntza nazional ere esaten zaio ofizialtasun estatusa edo hiztun kopurua kontuan hartu gabe nazioaren hizkuntza bereizgarria denari.¹⁰

- 1.3. Babestutako hizkuntzak. Posible da estatu batean hizkuntza bat edo multzo bat izatea ofizialak eta aldi berean, izaera ofizial berbera ez duten baina arauen babesa jasotzen duten beste hizkuntza batzuk egotea. Hizkuntza gutxituen kasua da. Produkzio literario eta zientifiko mugatuagoa izan ohi dute eta batzuetan ez dira guztiz estandarizatuak izan eta beraien erabilera historikoki ez da erakundeetara edota derrigorrezko irakaskuntzara zabaldu.¹¹

Hizkuntza hauek jasotzen duten babes gradua oso ezberdina da, baina normalki hizkuntza ofizialena baino apalagoa da eta hizkuntza ofizial horien aurrean izan dezaketen desagerpen arriskua ekiditera eta eremu pribatu eta publiko batzuetan hiztunek erabiltzeko dituzten eskubideak bermatzera bideratuta daude.¹²

⁸ *Ibid.*, 70. orr.

⁹ *Ibid.*, 71. orr.

¹⁰ *Ibid.*, 73. orr.

¹¹ *Ibid.*, 78. orr.

¹² *Ibid.*

Munduan dagoen hizkuntza kopuru ugaria eta gehienek oso hiztun gutxi dituztela kontuan izanda, azken mendean horietako batzuei hizkuntza ofizial estatusa aitortu arren, ordenamendu juridikoak aipatzen dituen hizkuntza gehienak babesturiko hizkuntzen multzoan kokatzen direla gogoratu behar da.¹³

1.4. Lanerako hizkuntzak. Lanerako hizkuntzen kontzeptua nazioarteko harremanen baitan sortu da. Nazioarteko erakunde bateko organo kolegiatueta edo nazioarteko konferentzia batean estatu ezberdinetatik datozen pertsonen lan egin behar dutenean eta pertsona horiek beren burua hizkuntza ezberdinetan adierazteko ohitura dutenean, lanerako hizkuntza bat edo batzuk ezartzea beharrezkoa izan ohi da eztabaidak, idatziak eta barne komunikazioak hizkuntza horietan egiteko.¹⁴

Norberaren nortasunaren defentsa dela medio, estatuei kosta egiten zaie parte hartzen duten nazioarteko erakundeetako hizkuntza ofizial gisa beraientzat arrotza den hizkuntza bat onartzea. Hori dela eta, herrialde guztien hizkuntzak, herrialde garrantzitsuenetakok edo nazioarte mailan gehien erabiltzen direnak onartu ohi dituzte. Aukeraketa hori egiteak eztabaidetan erabiliko diren hizkuntzak zehazteko beharra azaleratzen du, horregatik, partaide guztiak ezagutzen dituzten lanerako hizkuntzak aukeratzen dira edo itzulpen sistemak ahalik eta modu eraginkorrenean aplikatuz erabil daitezkeenak. Dena den, hizkuntza ofizialekin ez bezala, lanerako hizkuntzaren ezarpenak erakundeko kide edo konferentziako parte-hartzaileei soilik eragingo die. Ezarpen horrek ez du ondorioz izango erakunde publikoek hiritarrek dituzten harremanetan eta horiek hizkuntzaren ezagutza eta erabilerari dagokionez dituzten eskubide eta betebeharretan.¹⁵

1.5. Atzerriko hizkuntzak. Ereku jakin batean arrotzak diren hizkuntzak, beste herrialde batekoak eta ofizialtasun erregimenetik eta hizkuntza babestuetatik at daudenak dira. Hala eta guztiz ere, barne nahiz nazioarteko ordenamenduetan

¹³ *Ibid.*, 78. orr.

¹⁴ *Ibid.*, 79. orr.

¹⁵ *Ibid.*

hizkuntza klase horiek hiru motatako aipamenak edukitzen dituzte. Alde batetik, hizkuntza horien ahozko zein idatzizko erabilpenek eragin juridikoak noiz sortuko dituzten esango dute. Bigarrenik, irakaskuntza planetan atzerriko hizkuntzen ikasketa barneratuko da. Azkenik, ordenamendu juridikoan aurki daitekeen hirugarren aipamena, administrazio publikoko lanpostuetarako izan beharreko atzerriko hizkuntza jakinen ezagutzari lotuta dago.¹⁶

2. Hizkuntzak eta Oinarrizko Eskubideak

20. mendeko lehen hamarkadetan ekin eta batez ere 1945etik aurrera, hizkuntza aniztasuna giza eskubideekin lotzen hasten da pixkanaka. 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak hizkuntzei egiten dien erreferentzia bakarra 2. artikulukoa da, non esaten den pertsona guztiek eskubide eta askatasun berberak izango dituztela, hizkuntza edo beste edozein alorretako diskriminazioa debekatuz. 1950eko Giza Eskubideen Europako Ituneko 14. artikuluaen edukia berdina da, baina ugariak dira progresiboki gaia jorratu eta hizkuntzari lotutako eskubideen eremua zehaztu duten xedapenak. Arauak ugariak izan arren, Nazioarteko Zuzenbideak ez du hizkuntza eskubideentzako gutxiengo estandarra ezartzen. Asko jota, arau ezberdinen konbinazioaren ondorioz zuzenbide europarrean eduki nahiko zehaztugabea duten eskubideen “gune gogor” aurki genezake. Gutxiengoaren existentzia eta nortasunerako eskubideak, eremu publiko eta pribatuan hizkuntza propioa erabiltzeko eskubideak, ama hizkuntzan erakutsia izateko eskubideak, hizkuntza arrazoiengatik diskriminatua ez izateko eskubideak eta atxiloketa edo akusazio penalaren kasuan ulertzen duen hizkuntza batean informatua izateko eskubideak osatzen dute gune gogor hori.¹⁷

Petschen Verdaguerra jarraituz esan daiteke hizkuntzari lotutako eskubideen babesa honako bide hauen bitartez burutzen dela:¹⁸

- a) Hizkuntza arrazoiengatik diskriminatua ez izateko eskubidea eta norberaren hizkuntza erabiltzeko eskubidea. Eskubide Zibil eta Politikoen Itunak aipamena egiten die eskubide horiei baina dokumentu horretan jasotzen den aintzatespena

¹⁶ *Ibid.*, 80. orr.

¹⁷ *Ibid.*, 58. orr.

¹⁸ PETSCHEN VERDAGUER, S., “Entre la política y el derecho: La Carta europea de las lenguas regionales o minoritarias”, *Revista de Estudios Políticos*, 66. zenb, 1989, 130. orr.

norbanakoentzako da eta ez gutxiengo kolektiboentzako bere osotasunean. Bestalde, Eskualde edo Eremu Urriko Europako Hizkuntzen Gutunean egiten den aipamena hizkuntzak ondare moduan babestera bideratuta dago.

- b) Adierazpen askatasuna. Eskubide honek edukia ez ezik forma ere babeste du; adierazpen askatasunak hizkuntza jakin baten adieraztera behartzea debekatzen du.
- c) Irakaskuntza askatasuna. Hizkuntza jakin batean irakatsia izateko eskubidea ez dago bermatuta, nahiz eta, testu batzuetan aipamen jakin batzuk egin. Hortaz, ez da estatu kideei exijitu ahalko zaien eskubide bat aurreikusten.
- d) Kultura eskubidea. Azken urteetan eskubide kulturei erreferentzia egin zaie nazioarteko hainbat testutan, besteak beste 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean, non pertsona orok bizitza kulturean parte hartzeko duen eskubidea aintzatesten den. Dena den, Prieto De Pedro autorearen esanetan kultura eskubideak hizkuntza eskubideen kategoria azpigaratua dira, gizateria osoaren ondare izan arren kultura eskubideak, gehiengoaren aurrean zerbait aldarrikatzen duten talde gutxituetara mugatu baitira.¹⁹

Kultura eskubideen aitortpena egun ez baldin badago oso garatuta zer esan hizkuntza eskubideen aipamen zehatzen inguruan. Aipamen zehatz horiek oso berriak dira. Hizkuntza Eskubideen Nazioarteko Deklarazioa izan badago, gobernu kanpoko hainbat erakundek sortu zuten hizkuntza eskubideei lotuta UNESCOk 1996ean Bartzelonan antolatutako jardunaldi batzuen ostean. Hizkuntza alorreko eskubide ugari aipatzen diren arren esan beharra dago Deklarazioak ez duela izaera juridiko loteslerik. Alabaina, baliteke etorkizunean nazioarteko erakunderen batek izaera antzekoa duen testuren bat sortzea eta arau juridiko bihurtzea.²⁰

3. Hizkuntza Eskubideak Europako Kontseiluan

Europako Kontseiluaren oinarri ideologikoak Bigarren Mundu Gerraren ostean Ekialdeko Europan loratutako mugimenduetan aurki daitezke. Eratze prozesu konplexuaren ostean, 1949ko urtarrilaren 28 eta 29an Europako Kontseilua izeneko nazioarteko erakundea sortzea erabaki zuten, zeinak, organo nagusi bezala Ministroen

¹⁹ IZU BELLOSO, M.J., (*apud.* PRIETO DE PEDRO)

²⁰ *Ibid.*, 62.orr.

Komitea eta aholku izaerako Batzarra izango zituen. Proposamen horien egituraketa aurrera eramateko asmoz urte bereko martxo eta apirilean zehar nazioarteko konferentzia ospatu zen Londresen. Konferentzia horretan izan ziren Belgika, Frantzia, Britainia Handia, Luxenburgo, Herbehereak, Danimarka, Irlanda, Italia, Norvegia eta Suedia. 1949ko maiatzaren 5ean konferentzian parte hartu zuten estatu guztiek sinatu zuten Europako Kontseilua sortu zuen hitzarmena, Kontseiluaren egoitza Estrasburgon ezarriz.²¹

Europako Kontseiluak eskualde izaera du eta bere helburu nagusia askatasun publikoak babestea eta zuzenbidea demokrazia ororen oinarrian ezartzea dira, baita oinarrizko giza eskubideak babestea ere. Horrelaxe zehazten da hitzaurrean, lehen artikuluko a) atalean eta hirugarren artikuluan.²²

Europako Kontseiluaren beste helburuetako batzuk dira kultura nortasun europarra sustatzea eta horri balioa ematea, egungo gizartearen arazoei konponbidea aurkitzea (diskriminazioa, xenofobia, intolerantzia, ingurumena, genetika, droga, hiesa, talde kriminal antolatuak, etab.) eta Europako oreka demokratikoa garatzea, horretarako Europan bultzatzen diren erreforma politiko, legegile eta konstituzional guztiak lagunduz. Bi organok osatzen dute Europako Kontseiluaren egitura; Ministroen Komiteak eta Biltzar Parlamentarioak. Europako Kontseiluko Idazkari Orokorraren Gabinetek osatzen du erakundearen antolakuntza.²³

3.1. Giza Eskubideen Europako Ituna eta Giza Eskubideen Europako Auzitegia

Europako Kontseilua sortu eta urtebetera, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren negoziazio prozesuan eskuratutako esperientzia eta Bigarren Mundu Gerrako sarraskien ostean zegoen borondate politiko sendoa aprobetxatuz, 1950eko abuztuaren 25ean Europako Kontseiluko Biltzar Parlamentarioak Giza Eskubideen Europako Ituna onartu zuen.²⁴

²¹ DIEZ DE VELASCO, M., "Las organizaciones de cooperación con fines generales; El Consejo de Europa", *Las organizaciones internacionales*, Tecnos, Madrid, 2008, 482. orr.

²² CASADEVALL, J., "Breve introducción al Consejo de Europa", *El Convenio Europeo de Derechos Humanos, el Tribunal de Estrasburgo y su jurisprudencia*, Tirant lo Blanc, Valencia, 2012, 25. orr.

²³ *Ibid.*

²⁴ *Ibid.*, 33. orr.

Ituna garai hartan eta aurreko urteetan Europak jazotako gertakarien aurrean eman zen erantzuna izan zen. Bigarren Mundu Gerraren ostean Europan zehar zabalduz zioan Komunismoaren aurrean bastioi bat ezartzeko nahitik sortu zen Ituna. Itunak, alde batetik, Ekialdeko Europako estatuen oinarrian zeuden printzipioen deklarazio sinbolikoa jasotzen zuen, eta bestetik, estatu horiek subertsio komunista baten aurrean babes zitzakeen tresna gisa azaltzen da.²⁵

Esan daiteke Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala dela Itunaren inspirazio iturria. Beste era batera esanda, Aldarrikapena eremu unibertsaleko paktu orokorra da eta Ituna eskualde esparrukoa, zeinak, alderdiek hartutako konpromezuak betetzen direla ziurtatzeko kontrol eta ikuskapen mekanismoak ezartzen dituen.²⁶

Eskubideen sailkapenari dagokienez, hiru multzotan sailka daitezke Itunean aipatzen diren eskubideak.²⁷

Alde batetik, indargabetu ezin daitezten eskubideen multzo trinkoa dago eta bertan bizitzarako eskubidea (2. artikulua), torturaren eta tratu ez-gizatiar edo laidogarrien debekua (3. artikulua), esklabotzaren debekua (4. artikulua, 1. paragrafoa) eta legaltasun penalaren printzipioa errespetatzeko obligazioa (7. artikulua) bezalakoak barneratzen dira.

Beste alde batetik, gutxiengo eskubideen multzoa bereiz daiteke, non gutxiengo eskubideak barneratzen diren, besteak beste: bortxazko lanen debekua (4. artikulua, 2. paragrafoa); segurtasun eta askatasun eskubideak, prebentziozko espetxeratzearen mugaketa, dagokion informazioa jasotzeko eskubidea, *habeas corpus* baterako eskubidea eta beste hainbat (5. artikulua); prozesu bidezko baterako eskubidea (5. artikulua); ezkontzeko eskubidea (12. artikulua); instantzia nazional baten aurrean Itunak aurreikusitako eskubideren bat urratua sentitu duen orok errekurtsio eraginkorra tarteratzeko eskubidea (13. artikulua); eskubide eta askatasun horien egikaritzea askea eta diskriminazio debekua (14. artikulua).

²⁵ HARRIS, D.J., O'BOYLE, M., BATES, E.P., BUCKELY, C.M., "The European Convention on Human Rights on context", *Law of the European Convention on Human Rights*, Oxford University Press, Oxford, 2014, 3. orr.

²⁶ CASADEVALL, J., *op.cit.*, 34. orr.

²⁷ *Ibid.*, 35. orr.

Hirugarren eta azken multzoa, mugatutako eskubideek osatzen dute. Multzo honetan egongo dira: bizitza familiar eta pribaturako eskubidea (8. artikulua); pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna (9. artikulua); adierazpen askatasuna, iritzi askatasuna eta edozein ideia jaso edo elkarbanatzeko eskubidea (10. artikulua); biltze baketsurako eskubidea, elkartzeko askatasuna eta sindikazio eskubidea (11. artikulua). Hirugarren multzo honetako eskubideen mugatu izena ematearen arrazoia da eskubide horiek aurreikusten dituzten artikuluen bigarren zatietan Estatuari eskubide horiek mugatzeko edo horien egikaritza askea interferitzeko eskumenak ematen zaizkiela.²⁸

Ituna ez da elkarrekikotasun printzipioaren pean geratzen. Izan ere, kontuan hartuta bere helburu nagusia pertsonen askatasun, duintasun eta segurtasuna bermatzea dela, Itunaren parte diren estatuak ez dute beraien burua interes nazionalak defendatzeko elkarrekiko edo era multilateralean lotzen. Helburua estatu horien jurisdikziopean dauden pertsonen Itunak aurreikusten dizkien norbanakoen eskubideak era kolektiboan bermatzea da.²⁹

Helburu horiek bermatzeko, Giza Eskubideen Europako Itunak Giza Eskubideen Europako Auzitegia ezarri zuen. Ondorioz, Itunak aurreikusitako eskubideren bat estatu kideren batek urratu diola uste duenean norbaitek Auzitegira joateko aukera du. Auzitegiaren erabakiak juridikoki lotesleak dira eta Auzitegiak kalte-ordainak ezarri ditzake.³⁰

Dena den, gogoratu behar dugu 1998ko urriaren 30era arte ezarritako kontrol sistema ez zela berdina. Itunak 1950an ezarri eta 1998ko urriaren 30era arte iraun zuen sistema hau bi buruko sistema zen (Giza Eskubideen Komisio Europarrak eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak osatua) eta izaera hori izatea, garai hartan estatu batzuek kanpo organo jurisdikzional baten menpe geratzeko zituzten dudedekin uler daiteke.³¹

²⁸ *Ibid.*, 36. orr.

²⁹ *Ibid.*, 34. orr.

³⁰ VACCA, A., "A comparative approach between the Council of Europe Treaty and the European Union framework in the legal protection of minority languages", *Revista de Llengua i Dret*, 53. zenb., 2010, 114. orr.

³¹ CASADEVALL, J., *op.cit.*, 65. orr.

Itunak ezarritako kontrol mekanismoen aldaketa gauzatzeko lehen ideiak 80. hamarkada inguruan azaldu ziren eta 90. hamarkadaraino luzatu ziren.³² Europako Kontseiluara 90. hamarkadan estatu gehiago atxiki izanak kasuak aztertzerako orduan 4-5 urteko atzerapenak egotea ekarri zuen.³³ Horregatik, estatuburu eta gobernuburuek 1993ko urriaren 9ko Vienako Deklarazioan adierazi zuten erreforma horren helburu nagusiak zirela kontrol sistemaren eraginkortasuna hobetzea, Estrasburgoko prozeduren iraupena laburtzea eta giza eskubideen babesaren maila altua mantentzea.³⁴

1998ko azaroaren 1etatik aurrera 11. protokoloa indarrean sartu zen 2 buruko sistema (Komisioak eta Auzitegiak osatutakoak) indargabetuz eta denbora osoko dedikazioko Auzitegi iraunkorra sortuz. Aldaketa garrantzitsuena Komisioaren abolizioa izan arren, garrantzia handiko beste hainbat aldaketa prozesal ere egon ziren: Ministro Komitearen izaera sasi-judizialaren desagerpena eta Sala Nagusiara jo baino lehenagoko aurre prozedura baten ezarpena, besteak beste.³⁵

Egiturari dagokionez, Itunaren parte den estatu bakoitzeko epaile bat dago. Aurreko sistemarekiko ezberdintasuna da, lehen Europako Kontseiluko estatuko bat zegoela eta orain ez.³⁶

Itunak ematen dizkion eskuduntzen gainean jarduteko, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorengo egiturak ditu: Epaile Txostengilea (*rappporteur*), Hiru Epaileko Komiteak, Salak (Sekzioak), Bost Epaileko Kolegioak, Sala Nagusia eta Biltzar Plenarioa. Idazkaritza (Grefe) eta hainbat jurista alor ere baditu.³⁷

3.2. Hizkuntza Eskubideak Giza Eskubideen Europako Itunean eta Giza Eskubideen Europako Auzitegian

Giza Eskubideen Europako Ituneko 5, 6 eta 14 artikulua dira hizkuntzen gaiari erreferentzia egiten diotenak. 5. artikulua dio atxilotua den pertsona orok atxilotze

³² *Ibid.*, 71. orr.

³³ LEACH, P., "Introduction – The Council of Europe and the European Convention on Human Rights", *Taking a case to the European Court on Human Rights*, Oxford University Press, Oxford, 2011, 6. orr.

³⁴ CASADEVALL, J., *op.cit.*, 72. orr.

³⁵ LEACH, P., *op.cit.*, 7. orr.

³⁶ CASADEVALL, J., *op.cit.*, 79. orr.

³⁷ *Ibid.*, 80. orr.

horren arrazoiari berri bere hizkuntzan jasotzeko eskubidea izango duela. 6. artikuluan esaten da delitu bat egotzen zaionak, ezagutzen duen hizkuntza batean akusazioaren izaera eta arrazoiak segituan jakinarazia izateko eskubidea izango duela eta interprete baterako debaldeko aukera izango duela epaiketan zehar erabiltzen den hizkuntza ulertzeko arazoak baldin baditu. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia aztertuz gero eskubide horiek ez dira aplikagarriak interesatuak hizkuntza nazionala ere hitz egiten baldin badu. Bestalde, 14. artikuluari dagokionez, zehazten da Itunean aurreikusitako eskubide eta askatasunen gainean ezingo dela inolako diskriminazio motarik eman, ezta hizkuntza alorrean ere.³⁸ Aipamen horiek hizkuntza alorrekoak izan arren, aipamen horiek ez dira autonomoak, Itunak aurreikusten dituen beste eskubide batzuei lotuta daude.³⁹ Horietaz gain, 12. Protokolo Gehigarriko 1. artikuluan zeharkako aipamena ere jasotzen da, bertan esaten baita legedian ziurtatutako eskubideak bermatu beharko direla inolako bereizketarik egin gabe.⁴⁰

Aurreko puntuan aipatu dugun eskubideen sailkapena kontuan hartuta, hizkuntza eskubideekin lotura zuzena duten hiru artikuluko horiek bigarren multzoan egongo dira, hau da, gutxiengo eskubideen multzoan.

Ituneko hainbat xedapenen harira hizkuntza arazoak planteatu izan dira. Arazo horiek zuten elementu komun bakarra, hizkuntza izaerako arazo izatea da. Hain zuzen ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia dago gai ezberdinen inguruan: epaiketa bateko dokumentu eta informazioak itzultzeko beharraren ingurukoa akusatuak hizkuntza ulertzen ez duelako; bizitza familiar eta pribatuaren ingurukoa, gehien bat, izen aukeraketari edota autoritate nazionalek aukeraketari hori mugatzeko edo arautzeko (estatu kideko hizkuntza ofizialeko arau fonetikoekin) aukerari lotutako; adierazpen eta

³⁸ VACCA, A., *op.cit.*, 114. orr.

³⁹ MAGALDI, N., "Els drets lingüístics a la jurisprudència del Tribunal Europeu de Drets Humans", *Revista de Llengua i Dret*, 57. zenb., 2012, 126. orr.

⁴⁰ LEZERTUA RODRIGUEZ, M., "Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren aurretik. Giza Eskubideen Europako Hitzarmena eta eremu urriko hizkuntzak babesteko beharra", *Eremu urriko hizkuntzen babesa Europan: hamarkada berri baterantz*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2011, 15. orr.

informazio askatasunaren gainekoa; edota, hizkuntza- hezkuntza eta hizkuntza- hauteskunde askeak loturen ingurukoak.⁴¹

Hizkuntza eta epaiketa justu baterako eskubidea (6. artikulua)

Bi kasutan jardun du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak epaiketa justu baterako eskubidearen aspektu linguistikoaren inguruan.⁴²

Lehenean, 1994ko irailaren 19an emandako sententzian, *Kamasinski v. Austria* kasuan, demandatzailea Austrian ezarritako hiritar amerikarra da eta bere aurka egondako prozesu penalean hainbat irregulartasun eman eta Ituneko 6 eta 14 artikulua urratu zirela salatzen du. Kamasinski jaunak zehazki alegatzen zuena zen prozesuan zehar ez zuela bere ikuspuntua adierazteko aukerarik izan epaiketan erabilitako hizkuntza alemana izan zelako. Gainera, ez testigantzak, ez lehen instantziako sententzia ere ez ziren ingelesera itzuliak izan.⁴³

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren arabera, itzultzaile edo interpretea izateko eskubidea ez da ahozko prozedurara mugatzen, gainerako faseetan ematen edo sortzen den material dokumentalera ere zabaltzen da. Honela, akusatuak prozesuan zehar ematen diren dokumentuak ulertzeko beharrezkoak diren itzulpenak jasotzeko eskubidea izango du eta honela epaiketa justu baterako eskubidea bermatu egingo da. Hori bai, honek ez du esan nahi prozesuan ematen diren dokumentu guztiak itzuli behar direnik, bere burua defendatzeko eta egitateen bere bertsioa eraikitzeko adinako ulermena izan beharko du.⁴⁴

Kasu honetan, Auzitegiak atzera bota zituen Kamasinski jaunaren akusazio gehienak. Galdeketa polizialen idatzizko itzulpenik egon ez arren, ahozko interpretearen presentzia akusatuari egiten zaizkion galderak ulertzen dituela bermatzeko nahikoa dela esaten da.⁴⁵ Bestalde, inputatzen zitzaizkion karguak eta ahozko epaiketa irekitzeko arrazoiak azaltzen zituen ingelesezko agiri bat eman ez arren, Auzitegiak ebatzen du,

⁴¹ *Ibid.*

⁴² *Ibid.*, 127. orr.

⁴³ GEEA, 19-09-1994, *Kamasinski v. Austria* (9783/82), 5.-6-7. atalak

⁴⁴ GEEA, 19-09-1994, *Kamasinski v. Austria* (9783/82), 74. atala

⁴⁵ GEEA, 19-09-1994, *Kamasinski v. Austria* (9783/82), 76.-77. atalak

akusatuak ulertzen zituela inputazioak eta ondorioz, ez zela defentsa-gabeziarik eman.⁴⁶ Ezin izango da frogatu bistan aurkeztutako froga eta testigantzak ulertu ez zituenik.⁴⁷ Ezin izango da esan sententziaren itzulpen idatzia eman ez izanak epaiketa justu baterako eskubidea urratu zionik; izan ere, ahoz emandako azalpenek hori ordeztu zuten.⁴⁸

Auzitegiaren ustez alor bakar batean bakarrik ematen da epaiketa justu baterako eskubidearen urraketa. Kamasinski jaunak Auzitegi Gorenaren aurrean deuseztasuna eskatzen du eta honek bere eskaera baztertu eta gero, instantziako auzitegiari galdera batzuk luzatzen dizkio kasuko inguruabar faktiko batzuen inguruan. Galdera horietatik eratorritako informazioaren zati bat funtsezkoa izango da Kamasinski jaunaren eskaera baztertzeko, baina ez Kamasinski jaunak ezta bere abokatuak ere ez zuten ikerketa honen eta bere emaitzen berri jaso. Gainera, hortik eratorritako informazioa erabili zuen Auzitegi Gorenak akusazioaren alegazioei aurka egiteko.⁴⁹ Arrazoi hori dela eta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ebatzi zuen 6. artikulua urratu zela.

Bigarrena, 2006ko urriaren 18an emandako sententzia da, *Hermi v. Italy* kasua.⁵⁰ Kasu honetan, Fuasi Hermi jauna ez zen apelazio epaiketa batera aurkeztu eta beranduago argudiatu zuen italiara ondo ulertzen ez zuenez ez zituela epaiketaren egun eta ordua ulertu eta ezin izan zuela azaldu eta ondorioz parte hartu.⁵¹

Italiako araudiaren arabera, akusatuak denbora tarte jakin batean apelaziora azaltzeko asmoa adierazi behar du eta bestela, ulertuko da ez duela azaltzeko asmorik izango. Auzitegiak ondorioztatzen du akusatuak jakinarazpena ulertzeko italieraren ezagutza nahikoa zuela. Ondorio horretarako iristeko, Auzitegiak dio lehen instantziako epaiketak agerian uzten duela akusatuak epaiketako hizkuntza ezagutzen zuela eta gainera, egitateak gertatu ziren unean bi urte zeramatzala Italian bizitzen.⁵²

⁴⁶ GEEA, 19-09-1994, *Kamasinski v. Austria* (9783/82), 81. atala

⁴⁷ GEEA, 19-09-1994, *Kamasinski v. Austria* (9783/82), 83. atala

⁴⁸ GEEA, 19-09-1994, *Kamasinski v. Austria* (9783/82), 85. atala

⁴⁹ GEEA, 19-09-1994, *Kamasinski v. Austria* (9783/82), 82. atala

⁵⁰ GEEA, 18-10-2006, *Hermi v. Italy* (18114/02)

⁵¹ MAGALDI, N., *op.cit.*, 129. orr.

⁵² GEEA, 18-10-2006, *Hermi v. Italy* (18114/02), 74. atala

Ondorioz, 6. artikulua interpretatuz ulertzen da akusatua jardura jurisdikzionala jarraitzeko gai zela eta herrialdeko hizkuntza ezagutzen zuen pertsona baten egoera berean zegoela. Hortaz, ezin dela baieztatu hizkuntzak epaiketa justu baterako eskubidea oztopatzen duenik.⁵³

Hizkuntza eta bizitza familiar eta pribaturako errespetuaren eskubidea (8. artikulua)

Atal honetako sententziak hiru multzotan banatuko ditugu: finlandierarenak, letonierarenak eta ukranierarenak.⁵⁴

Finlandierari dagokionez, *Johansson v. Finland*⁵⁵ kasua da aipatu beharrekoa. Bikote finlandiar bat beraien semea *Axl Mick* izenez erregistratzen saiatu zen baina eskaera hori baztertua izan zen araudi finlandiarraren aurkako zela ulertu zelako. Araudi finlandiar horren atzean, Finlandia bezalako hizkuntza eremu murriztu bateko izen propio eta bereziak mantentzeko saiakera zegoen. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ebatzi zuen Finlandiako Gobernuak ez zuela frogatu *Axl* izena erregistratzeak herrialdeko kultura eta hizkuntza nortasunari kalterik sortzen zionik. Hortaz, Auzitegiak ondorioztatzen du Gobernuak bere apreziazio marjina gainditu zuela Ituneko 8. artikulua urratuz.

Letonierari dagokionez, *Siskina and Siskins v. Latvia*⁵⁶ kasua aipatu behar da. Kasu honetan, gatazka atzerriko hizkuntza batzuen izen eta abizenen letonierarako transkripzio fonetikoaren burutzean sortzen da. Demandatzaileak jatorri errusiarra duten eta Letonian erresidentzia jarraitu baimena duten ama-seme batzuk dira. Agintari letoniarrek beraien pasaporteak egiten dituztenean, orrialde nagusian beraien abizenak “Š”z idazten dituzte baina irakurketa automatikoaren atalean S arrunta erabiltzen dute. Demandatzaileek, Ituneko 8. artikulua aipatu eta alegatzen dute horrek beraien bizitza pribatu eta familiarra eta ohore eta intimitatea urratzen dituela. Auzitegiak ebatzen du ez dela 8. artikulua urratzen egon, irakurketa automatikoaren zatia irakurketa

⁵³ MAGALDI, N., *op.cit.*, 130. orr.

⁵⁴ *Ibid.*, 132. orr.

⁵⁵ GEEA, 06-12-2007, *Johansson v. Finland* (10163/02)

⁵⁶ GEEA, 08-11-2001, *Siskina and Siskins v. Latvia* (59727/00)

teknikora bideratuta dagoelako. Letonierari lotuta, *Mentzen v. Latvia*⁵⁷ eta *Kuharec alias Kuhareca v. Latvia*⁵⁸ kasuak ere aipagarriak dira.

Ukranieraren kasuan *Bulgakov v. Ukraine*⁵⁹ da azpimarratu beharrekoa. Demandatzailea Krimeako Errepublikan jaiotako eta errusiar gutxiengoaren parte den ukrainiar nazionalitatea duen gizon bat da. Lehenengo, Administrazio Ukraniarrak eman zion dokumentu bat identifikatu zuen, non, lehen orrian bere izena ukrainieraz azaltzen zen eta bigarrenean errusieraz. Bi urteren buruan, pasaporte berri bat aurkatzen du bere izena ukrainieraz eta ingelesez azaltzen delako eta bere ikuspuntutik bere izenaren “indarrezko ukrainizazioa” behartua eman delako. Gizonak dio gauza bat bere izenaren ukrainierazko itzulpena dela eta bestea, kasu honetan gertatu den bezala, bere izena baliokide ukraniarraigatik ordezkatzea. Horregatik dio Ituneko 8. artikuluan aurreikusitako bizitza pribatu eta familiarerako eskubidea urratzen zaiola. Auzitegiak ebazten du modu honetako murrizpen bat erabat bateragarria dela Ituneko 8. artikuluekin eta ez dela 8. artikuluan aurreikusitako eskubiderik urratzen.

Hizkuntza eta adierazpen askatasuna (10. artikulua)

Hizkuntza gaiak eta adierazpen askatasuna lotzen dituen sententzia esanguratsuena *Khurshid Mustafa and Tarzibachi v. Sweden*⁶⁰ da. Kasu honetan, demandatzailea jatorri irakiarra duen eta Suedian bizi den bikote bat da. Stockholmeko kanpoaldean etxe bat zuten alokatuta, eta bai alokairu kontratuak, bai bizilagun elkarteko funtzionamendu arauak antena parabolikoak ezartzea debekatzen zuten. Hala ere, bikote honek beraiek leihoan antena bat zuen. Pisua jabez aldatu eta jabe berriak antena kentzeko eskatzean bikoteak ez zuen kasurik egin eta jabe berriak kontratua etetea erabaki zuen. Bikoteak alegatzen zuen antena parabolikoa beharrezkoa zutela beraien ama hizkuntzan programak ikusi ahal izateko eta horrela Ituneko 10. artikulua biltzen duen informazio jasotzeko eskubidea egikaritzeko. Epaitegi suediarrek erabaki zuten jabeak kontratua eteteko hartutako erabakia zilegia zela. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ebatzi zuen organo jurisdikzional nazionalak kontratua etetea zilegitzat jotzeak Ituneko 10. artikulua urratzen zituela eta ondorioz adierazpen askatasuna urratzen zela. Kasu

⁵⁷ GEEA, 07-12-2004, *Mentzen v. Latvia* (71074/01)

⁵⁸ GEEA, 07-12-2004, *Kuharec alias Kuhareca v. Latvia* (71557/01)

⁵⁹ GEEA, 31-03-2008, *Bulgakov v. Ukraine* (59894/00)

⁶⁰ GEEA, 16-12-2008, *Khurshid Mustafa and Tarzibachi v. Sweden* (23883/06)

honetan, adierazpen askatasuna norberaren ama hizkuntzak emisio kulturalak, entretenimenduzkoak eta interes publikoak jasotzeko informazio eskubidera integratuta ulertu behar dugu.⁶¹

Hizkuntza eta hezkuntza eskubidea (Protokolo Gehigarriaren 2. artikulua)

Protokolo gehigarriko bigarren artikuluan xedatzen denaren arabera inori ezingo zaio hezkuntza eskubidea ukatu eta Estatuari egokituko zaio gurasoek beraien sinesmen erlijioso eta filosofikoak jarraituz hezkuntza horiek hautatzeko duten aukera onartzea.

Hezkuntza eskubidea eta hizkuntza lotzen dituen sententzia aipagarrienetakoa *Case relating to certain aspects of the laws on the use of language education in Belgium v. Belgium*⁶² kasua da. Belgikako hainbat guraso-frantses hiztunek, nederlanderaz hitz egiten zen eremuan bizi arren, beren seme-alabek Lehen eta Bigarren Hezkuntzazko ikasketak frantsesez jasotzea nahi zuten. Belgikako legediaren aplikazioak hezkuntza nederlanderaz jasotzera behartzen zituen, Belgikako legediak hizkuntzen lurraldetasunaren printzipioa jarraitzen baitzuen.⁶³ Auzitegiaren arabera, eremu elebakar bateko eskola publiko guztiek hizkuntza horretan irakastera behartuta egotea elementu objektiboetan oinarritutako mugapena da, eta hortaz, ez dira ez desproporzionatu ez arbitrarioak.⁶⁴ Alegia, Protokolo Gehigarriko 2. artikulua formulazio negatiboak ez zituela alderdi kontratugileak gurasoek aukeratutako edozein hizkuntza-mota ezarri eta finantziatzera behartzen, eta estatuak hezkuntza sistemari eman beharreko baliabideak eta horien antolaketa ezartzeko erabakitzeke tarte zabala zuela.⁶⁵

Laburbilduz, lurraldetasun printzipioan oinarritutako hizkuntza erregimen belgikarra onartu zuen, eta ondorioz, berretsi zuen hezkuntza eskubideak norberaren hezkuntzak ikasteko eskubidea ez duela beti barneratzen.⁶⁶

⁶¹ MAGALDI, N., *op.cit.*, 146. orr.

⁶² GEEA, 09-02-1967, *Case relating to certain aspects of the laws on the use of language education in Belgium v. Belgium* (1474/62; 1677/62; 1692/92; 1769/63; 1994/63; 2126/64)

⁶³ LEZERTUA RODRIGUEZ, M., *op.cit.*, 20.orr.

⁶⁴ MAGALDI, N., *op.cit.*, 149. orr.

⁶⁵ RODRIGUEZ LEZAERTUA, M., *loc.cit.*

⁶⁶ MAGALDI, N., *op.cit.*, 150. orr.

2001. urtean Auzitegiak ildo berberari heldu zion *Cyprus v. Turkey* kasua aztertzerako orduan.⁶⁷

Hizkuntza eta hauteskunde askeak (Protokolo Gehigarriaren 3. artikulua)

Artikulu honen inguruko bi kasu esanguratsu daude: *Mathieu Mohin and Clearfayt v. Belgium*⁶⁸ eta *Podkolzina v. Latvia*.⁶⁹

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Protokolo Gehigarriaren 3. artikulua horretan aipatzen diren eskubideen garrantzia aipatu arren, eskubide horiek absolutuak ez direla azpimarratzen du esanez estatuak apreziazio margen handia dutela bozkatzeko eta aukeratua izateko eskubideak konfiguratzeko orduan. Hortaz, eskubide horiei mugak ezartzeko aukera izango dute, beti ere, muga horiek eskubideen funtsari eragiten ez badiote, eskubideak ez eraginkor bilakatzen ez badituzte eta proportzionatuak badira. Ezarri daitezkeen muga horien barne egongo dira hizkuntza eskakizunei loturikoak.⁷⁰

Laburbilduz, esan daiteke estatuak erregula ditzakela herritarren eskubide politikoen egikaritze modalitateak, zeinak, esan bezala, apreziazio margen handia izango duen, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ezin izango duelarik hizkuntza jakin baten lurraldekotasun printzipioan oinarritutako sistemarik kondenatu.⁷¹

3.3. Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna

Eskualde eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna Europako Kontseiluko Ministroen Komiteak 1992ko ekainaren 25ean emandako eta urte bereko azaroaren 5ean sinaduretara irekitako nazioarteko ituna da. 1998ko martxoaren 1ean sartu zen indarrean. Europako Kontseiluaren parte diren 47 estatuetatik hogeita hamahiruk izenpetu eta hogeita bostek bakarrik berretsi dute.⁷² Honek esan nahi du Europako Kontseiluko herrialdeen erdia ez dagoela Gutunaren menpe eta hortaz, ezin zaiela

⁶⁷ GEEA, 10-05-2001, *Cyprus v. Turkey* (25781/94)

⁶⁸ GEEA, 02-03-1987, *Mathieu Mohin and Clearfayt v. Belgium* (9267/81)

⁶⁹ GEEA, 09-04-2002, *Podkolzina v. Latvia* (46726/99)

⁷⁰ MAGALDI, N., *op.cit.*, 152. orr.

⁷¹ MAGALDI, N. *op.cit.*, 153. orr.

⁷² Armenia, Andorra, Bosnia, Kroazia, Zipre, Txekiar Errepublika, Danimarka, Finlandia, Alemania, Hungaria, Liechtenstein, Luxenburgo, Montenegro, Herbehereak, Norvegia, Polonia, Errumania, Serbia, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Suedia, Suitza, Ukraina eta Erresuma Batua.

Gutuna aplikatu. 25 herrialde horien artean, egun Europar Batasuneko 15 kide besterik ez daude. Frantzia eta Italiak ez dute oraindik berretsi. Greziak, Portugalek eta Irlandak, ostera, ez dute sinatu ere egin.⁷³

Frantziari dagokionez, 1999an izenpetu bazuen ere, ez du inoiz berretsi. Izan ere, sinatu eta aste gutxi batzuetara, 1999ko ekainean, Frantziako Konstituzio Kontseiluak berrespena bateraezintzat jo zuen Konstituzioko 2. artikularekin, frantsesa Frantziako hizkuntza ofizial bakar gisa ezartzen duen artikularekin.⁷⁴

Espainiaren kasuan, 2001eko otsailaren 2an berretsia izan zen Gutuna, hots, egun horretatik aurrera izan zaio aplikagarri.⁷⁵

Gutunaren edukira salto eginez, Gutunaren helburuaren aipamena hitzaurrean egiten da:

“Europako Kontseiluko kide diren eta Gutun hau izenpetzen duten estatuek (...)

Jakitun izanda Europako eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak Europako eskualdeetan eta herrialdeetan babestu eta sustatzeak ekarpen garrantzitsua egiten diola demokraziaren eta kultur aniztasunaren printzipioetan oinarrituta eraikitako Europa eraikitzeari, nazioen subiranotasunaren eta lurralde-osotasunaren esparruetan; (...)”

Horrek argi uzten du Gutunaren garrantzia handia dela, gehien bat kultura- eta hizkuntza- aniztasunaren ingurune batean kulturen arteko elkarrizketa eta demokrazia eraikitzeari dagokionez. Gutunaren asmoa Europako eskualdeko edo eremu urriko hizkuntza tradizional bakoitza babestu eta sustatzeko oinarri izatea da, hizkuntza bakoitza baita Europako hizkuntza aniztasunaren parte eta denek laguntzen baitute Europako kultura-aberastasuna eta ohiturak mantentzen eta garatzen.⁷⁶

⁷³ VACCA, A., *op.cit.*, 117. orr.

⁷⁴ TRIFUNOVSKA, S., “1998-2008 arteko esperientzia: Gutuna ezartzea. Gutuna berrestearen problemak eta ikuspuntuak. Baltikoko estatuen kasua”, *Eremu urriko hizkuntzen babesa Europan: hamarkada berri baterantz*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2011, 73. orr.

⁷⁵ NIEVA FENOLLI, J., “La invocació directa de la Carta europea de les llengües regionals o minoritàries als tribunals”, *Revista de Llengua i Dret*, 52. zenb, 2009, 190. orr.

⁷⁶ GRAMSTAD, S., “1998-2008 arteko esperientzia: Gutunaren ezartzea. Gutunaren segimendua egiteko mekanismoa: ikuspuntu praktiko bat”, *Eremu urriko hizkuntzen babesa Europan: hamarkada berri baterantz*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2011, 28. orr.

Eskualde eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak ez ditu diskriminazioaren aurkako printzipioak bakarrik aipatzen, eskualde edo eremu urriko hizkuntzak hezkuntzan eta komunikabideetan erabiliak izateko neurriak hartzea ahalbidetzen du, baita administrazio eta justizia alorretan ere. Esan daiteke Gutunaren helburu nagusia kulturala dela, eskualde edo eremu urriko hizkuntzak sustatu behar baititu eta ez gutxiengo linguistikoak.⁷⁷

Gutunak bi zati nagusitan banatuta dago. II. zatia estatuan dauden eskualde edo eremu urriko hizkuntza guztien ingurukoa da, eta estatuaren politikak, legeak eta jardunbideak oinarritzeko helburu nahiz printzipioak ematen dira bertan. III. zatian ostera, estatu batek babes edo bultzada berezia eman nahi dien hizkuntzen ingurukoa da, eta hizkuntza bakoitzarentzat obligazio jakin batzuk aukeratzen dira menu batetik, gizarte maila guztietan aplikatzeko. Menuari esker, estatuak eskualde edo eremu urriko hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera obligazio multzo bat ezar dezake.⁷⁸

Gutunaren III. zati horretan 10. artikulua garrantzia berezia dauka. Bertan autoritate administratibo eta publikoekin hizkuntza horiek erabiltzeko aukera aurreikusten da, hau da, eremu pribatutik haratago doaz hizkuntza horiek. Artikulu horrek administrazio publikoek burutu ditzaketen hiru jardura mota bereizten ditu: estatuko autoritate administratiboek burututakoak, eskualde edo toki administrazioetakoak, eta zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten erakundeek hartutakoak. Neurriak hartzeko izango duten gaitasuna egoeraren arabera izango da, kasu batzuetan ezin baitira xedapenak erabat aplikatu finantzazio, pertsonal edo prestakuntza faltagatik. Artikulu horrek aipamen zehatzak jasotzen dituen arren, lauso eta diskrezional xamarra dela esan beharra dago, arrazoi ekonomikoengatik oso zaila izan baitaiteke estatu batentzat hizkuntza gutxitua hitzegiten duten langileak kontratatzea.⁷⁹

Bestalde, IV. zati bat ere badago, non, segimendu sistema bat ezartzen den. Herrialde bakoitzak Gutuna indarrean sartu eta urtebete baino lehen, hasierako nazio-txostena aurkeztu beharko dio Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiari, eta horren ondoren, hiru urtean behin beste txosten bat aurkeztu beharko da. Txosten horiek aztertzea Europako Kontseiluko Ministro Komiteak izendatutako Aditu Batzordeari dagokio.

⁷⁷ VACCA. A., *op.cit.*, 117. orr.

⁷⁸ GRAMSTAD, S., *op.cit.*, 29. orr.

⁷⁹ VACCA. A., *op.cit.*, 118. orr.

Aditu Batzordeak bere ebaluazio txostenak idatziko ditu, Ministro Batzordeari proposamen horiek igorri eta azken honek dagokion estatuari bidaltzea erabaki dezake.⁸⁰

Berrito 10. artikulura itzuliz, Aditu Batzordearen Txostenak ez ditu beti estatu batek babestu beharreko hizkuntzen zerrendan jarritako hizkuntza denak aipatzen. Arrazoi ezberdinak egon daitezke horren atzean. Gerta daiteke egoerak aldaketarik jasan ez izana azken txostena eman zenetik eta horregatik aipamenik ez egitea, edo besterik gabe, Adituen Batzordeak ez duela denborarik izan hizkuntza hori txostenean txertatzeko.⁸¹

Laburbilduz, Eskualde edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak hizkuntza gutxituak zuzenean aipatzen ditu eta gutxien erabiltzen diren hizkuntzen babeserako funtsezko elementua da Europa mailan.⁸²

3.4. Gutxiengo Nazionalen Babeserako Konbenio Markoa

Europako Kontseiluak gutxiengo hizkuntzen babesean garrantzia handia du, arlo honetan bereziki garrantzitsuak diren bi itun sortu baititu. Alde batetik, aipatu berri dugun Eskualde eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, eta bestetik, Gutxiengo Nazionalen Babeserako Konbenio Markoa.⁸³

Europako Kontseiluko Ministroen Kontseiluak 1994ko azaroaren 10ean onartu zuen Gutxiengo Nazionalen Babeserako Konbenio Markoa, 1995eko otsailaren 1ean ireki zen sinadura epea⁸⁴ eta 1998ko otsailaren 1ean sartu zen indarrean. Gutxiengo nazionalen babesera zuzendutako lehen tresna juridiko lotesle aldeanitza da. Orain arte Europako Kontseiluko 47 estatuetatik 39 berretsi dute.⁸⁵ Frantzia, Turkia, Andorra eta Monakok

⁸⁰ GRAMSTAD, S., *loc.cit.*

⁸¹ POGGESCHI, G., "The Use of Regional and Minority Languages in the Public Administration and the undertaking of article 10 of the European Charter for Regional or Minority Languages", *Revista de Llengua i Dret*, 57. zenb., 2012, 167. orr.

⁸² VACCA, A., *loc.cit.*

⁸³ *Ibid.*, 115. orr.

⁸⁴ DIAZ BARRADO, C.M., "La protección de las minorías nacionales por el Consejo de Europa", *Anuario de la Facultad de Derecho*, 17. zenb., 1999, 149. orr.

⁸⁵ Albania, Armenia, Austria, Azerbaijan, Bosnia eta Herzegovina, Bulgaria, Kroazia, Zipre, Txekiar Errepublikak, Danimarka, Estonia, Finlandia, Georgia, Alemania, Hungaria, Irlanda, Italia, Letonia,

ez zuten sinatu. Belgikak, Greziak, Islandiak eta Luxenburgok ez zuten berretsi, nahiz eta, Belgikak gehien bat hizkuntza aniztasun oso aberatsa izan. Konbenioaren helburua azken finean da gutxiengo nazionalen beren kultura mantendu eta garatzeko baldintza egokiak ematea eta honela gutxiengo nazionalen berdintasun eraginkorra lortzea.⁸⁶

Bere izaera pragmatiko sakonagatik, Konbenio Markoak batzuetan izaera eta indar lotesledun itun baten baino gehiago printzipio deklarazio baten antza handiago dauka.⁸⁷ Konbenio Markoan jasotzen diren xedapenak oso zehaztugabe eta lausoak dira eta Estatuaren diskrezionalitatean pean geratzen da bertan ezartzen diren helburuak betetzeko beharrezko neurriak hartzea.⁸⁸ Alegia, gainerako nazioarteko itun gehienekin gertatzen ez den bezala, bertako xedapenak ez dira zuzenean aplikagarriak, Estatuak emaitzei dagokienez geratzen dira betetzera behartuta eta emaitza horiek lortzeko egokiak iruditzen zaizkion neurri politiko eta legegileak hartu ditzake estatu bakoitzak.⁸⁹

Ez da gutxiengo nazionalaren definiziorik ematen. Europako Kontseiluko estatuak gutxiengo edo minoria nazionala definitzerako orduan ados jarri ez zirenez ez zen inolako definiziorik eman. Dena den, estatu batzuk Konbenio Markoari berrespena emateko burututako deklarazioan beren eremu nazionalen gutxiengoaren definizioa eman dute.⁹⁰

Konbenioaren saiakera indibidualista dela esan daiteke, ez baititu eskubide kolektiboak aurreikusten. Hala ere, gutxiengo nazional horien parte diren pertsonak eskubide horiek era indibidualean edo kolektiboan egikaritu ditzaketan norbanako bezala babestu behar ditu Konbenioak.⁹¹

Liechtenstein, Lituania, Malta, Moldavia, Herbehereak, Norvegia, Polonia, Portugal, Errumania, Errusiar Federazioa, San Marino, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Suedia, Suitza, Mazedonia, Ukraina, Erresuma Batua eta Serbia eta Montenegro.

⁸⁶ VACCA, A., *loc.cit.*

⁸⁷ DIAZ BARRADO, C.M., *op.cit.*, 150. orr.

⁸⁸ VACCA, A., *op.cit.*, 116. orr.

⁸⁹ RUIZ VIEYTEZ, E.J., "Minorias, inmigración y democracia en Europa", *Derechos Humanos*, Tirant Lo Blanch, Valencia, 2006, 428. orr.

⁹⁰ *Ibid.*

⁹¹ VACCA, A., *loc.cit.*

Konbenio Markoaren interpretazioari dagokionez, Giza Eskubideen Europako Itunak sortutako organoek ez dute eskuduntzarik izango horretarako eta giza eskubideen arau orokorrak jarraituz interpretatuko da. Beste helburu batzuk tolerantzia izpiritua, kultura arteko elkarrizketa, elkarrekiko errespetua eta elkarlana sustatzea dira. Hezkuntza, kultura, administrazio publikoak eta komunikabideak garrantzitsuak dira helburu horiek lortzeko. 10. artikuluan, hizkuntza gutxitu bat eremu publiko nahiz pribatuan, idatziz nahiz ahoz inolako interferentziarik gabe erabiltzeko eskubidea aurreikusten da. 2. paragrafoan erakunde publikoekin hizkuntza gutxituak erabiltzeko eskubidea aurreikusten da. Baliteke arazo finantzarioek xedapen horien aplikazioa mugatzea, baina ez dira ez aplikatzeko aitzakia nahikoa. Artikulua oso zehatza izan ez eta ahultasun puntu batzuk zituenez, Aholku Komiteak bere interpretazioen bidez sendotu zituen. Ministro Komiteak Konbenio Markoaren monitorizazioaren ardura du eta Aholku Komitea da monitorizazio prozesu horretan laguntzen diona.⁹²

4. Hizkuntza Eskubideak Europar Batasunean

4.1. Hizkuntza eraentza Europar Batasunean

Europa bere horretan eremu oso aberatsa eta anitza da hizkuntzen ikuspegitik begiratu ezker. Europar Batasuna osatzen duten 28 estatu kideetan egoera eta estatus oso ezberdinak dituzten 60 berezko hizkuntzatik gora daude. Hizkuntza guzti horiek bizi duten egoera ezberdina ezaugarri oso esanguratsua da, izan ere, Batasuneko hizkuntza gehienek oso hitzun kopuru txikia dute eta oso gutxi dira oso zabaldua daudenak. Badaude beste batzuk hitzun kopuru handi xamarra izan arren, inolako onarpen ofizialik ez dutenak edota nolabaiteko onarpen ofiziala dutenak edo ko-ofizialak direnak baina aurrera ateratzeko zailtasun ugari dituztenak.⁹³

Itunek hizkuntzen estatus ofiziala zehazki arautzen ez duten arren, Itun horietan aipatutakoa kontuan hartuta hiru multzoren arteko bereizketa egin daiteke.⁹⁴

⁹² *Ibid.*

⁹³ URRUTIA, I. eta LASAGABASTER, I., "Language Rights as a General Principle of Community Law", *German Law Journal*, 8.bol. 5. zenb., 2007, 479. orr.

⁹⁴ *Ibid.*

4.1.1. Itunetako hizkuntzak

Itunetako hizkuntzak Europar Batasuneko Ituneko 55.1 artikuluan aipatzen dira.

Erromako Itunetan egin zen Itunetako Hizkuntza kontzeptuaren lehen aipamena, izan ere, 1951ko Europako Ikatza eta Altzairuaren Erkidegoaren (EIAE) itun sortzailea herrialde parte-hartzaile guztien hizkuntzan idatzi arren, balio legala zuen bakarra frantsesezko bertsoia izan zen eta hori erabili zen gainerako hiru hizkuntzetako bertsoiak sortzeko.⁹⁵ Erromako Itunetatik aurrera, ostera, estatu-kide guztien hizkuntzetan prestatutako itunen bertsoiak baliokideak dira.⁹⁶ Itun horietan jasotako hizkuntza baliokideen zerrenda zabalduz joan da Europa Batasuneko handiagotzeetara egokituz eta estatu-kide berrietako hizkuntza ofizialak barneratuz, hizkuntza ofizial horietan emandako itunak baliokide bilakatu. Gauzak horrela, artikulua horren edukiaren azken bertsoia eta egun indarrean dagoena Europar Batasuneko Ituneko 55.1 artikuluan aurki daiteke, non, egun dauden 24 hizkuntza ofizialak aipatzen diren.⁹⁷

Orokorrean, Batasuneko Itunek egiten dutena Itunen bertsoiak baliozko diren hizkuntzak zerrendatzea da (alegia Itunetako Hizkuntza izaera eskuratzen dutenen zerrenda ematea).⁹⁸ Europar Komunitatea ezartzen zuen tratatuaren 314. artikuluan (egun Europar Batasuneko Funtzionamendu Trataturia) eta EURATOMeko 225. artikuluan ere Itunak baliozkoak ziren hizkuntzak zerrendatzen ziren.⁹⁹ Europar Batasuneko 55.1 artikulua eta aurretik egondako antzerakoen helburu nagusia Trataturia interpretatzeko zein hizkuntzatarako bertsoiak baliozkoak diren jakitea da.¹⁰⁰

Bestalde, honi lotuta, esan beharra dago estatu-kide eta itunetako hizkuntza kopuruen arteko parekatzea ez dela inoiz existitu estatu-kide batzuetako hizkuntza nazionalak

⁹⁵ FERNANDEZ VITORES, D., "El régimen lingüístico del Parlamento Europeo y la inclusión de Las Lenguas Regionales y Minoritarias", *El Parlamento Europeo: ¿Esta vez es diferente? (European Inklings (EU) V)* IVAP, Oñati, 2015, 102. orr.

⁹⁶ ARZO SANTISTEBAN, X., "Europar Batasuna, eskualdeak eta hizkuntza-eskubideak" *Eleria*, 21. zenb. (Eskualdea, Europar Batasuneko "Kide" berriaren inguruabarrak), 2011, 73. orr.

⁹⁷ FERNANDEZ VITORES, D., *op. cit.*, 103. orr.

⁹⁸ MILIAN I MASSANA, A., "Recognition of the Basque Language in the EU" *The Legal Status of the Basque Language Today: One Language, Three Administrations, Seven Different Geographies and a Diaspora*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2008, 94 orr.

⁹⁹ *Ibid.*

¹⁰⁰ URRUTIA, I. eta LASAGABASTER, I., (*apud* Treaty Establishing a Constituion for Europe)

berberak baitira . Horren adibide argia Belgika da, non hizkuntza ofizialak holandesa, alemaniera eta frantsesa diren.¹⁰¹ Gainera, parekatzearen existentzia eza, hasiera-hasieratik gertatu den zerbait da, lehen sei estatu kideek lau hizkuntza ofizial baitzituzten eta horiek eraman ziren Europar Erkidegoetara.¹⁰²

4.1.2. Lanerako hizkuntzak

Ez Europar Komunitatea osatzen duten itunek, ez Europar Batasuneko Itunak, ezta horiek aldatu dituzten itunek ez dituzte Batasuneko lanerako hizkuntzak eta hizkuntza ofizialak zehaztu.¹⁰³ Hizkuntza ofizialen sistema itunetako hizkuntzekiko ezberdina den plano batean kokatu beharra dago. Hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, Europar Batasuneko hizkuntza egitura ezarri edo aldaketaren bat sortzeko Kontseiluaren ahobatezkotasuna beharrezkoa da (Lisboako Itun aurreko Europar Komunitatea ezartzen zuen tratatuaren 291 artikulua arabera.). Kontseiluak gai honetan honelako indarra izateak, argi uzten du hizkuntza egiturak gatazka europarretan duen garrantzia.¹⁰⁴ Erromako Itunaren ostean eman zen 1/58 Erregelamenduaren bidez lanerako hizkuntzen edo hizkuntza ofizialen zerrenda eman zen¹⁰⁵, zeina handituz joan den estatu-kide berriak sartu ahala. Egun 24 hizkuntza ofizial daude eta itunetako hizkuntzen berberak dira.¹⁰⁶

Kurioso da Erregelamenduan zerrendatzen diren hizkuntzak zein ordenetan dauden aztertzea. Hasieratik jarraitu den irizpidea alfabetikoa da. Honela, 1. artikulua gaztelaniako azken bertsioan gaztelera hirugarren lekuan ageri da. Ingeleseko bertsioan aldiz, hogeita hirugarrena da, suediarren aurretik soilik. 1995era arte, frantsesezko bertsioak ere irizpide alfabetikoa jarraitu zuen. 2004ko erreformaren ostean, ostera, jatorri deiturarekin bat zetorren aipamen ordena erabiltzearen alde jo zuten.¹⁰⁷

¹⁰¹ FERNANDEZ VITORES, D., *loc. cit.*

¹⁰² ARZOZ SANTISTEBAN, X., *loc. cit.*

¹⁰³ MILIAN I MASSANA, A., *loc. cit.*

¹⁰⁴ URRUTIA, I. eta LASAGABASTER, I., *op.cit.*, 481. orr.

¹⁰⁵ VALDIBIESO BLANCO, M., "Política lingüística, norma lingüística y terminología en el plano supranacional" *Tonos digital: Revista electrónica de estudios filológicos*, 16. zenb., 2008, 5. orr.

¹⁰⁶ URRUTIA, I. eta LASAGABASTER, I., *loc. cit.*

¹⁰⁷ FERNANDEZ VITORES, D., *op. cit.*, 109. orr.

Dena den, egun itunetako hizkuntzak hizkuntza ofizialekin bat etorri arren, hori ez da beti horrela izan. 1973 eta 2007 urteen bitartean desoreka egoera bat egon zen, irlandarak 1973az geroztik itunetako hizkuntza izaera zuelako, baina hizkuntza ofizial estatusa 2007an eskuratu zuelako.¹⁰⁸ Estatu-kide bateko hizkuntzak hizkuntza ofizial aintzatespena jasotzeak balio sinboliko handia dauka. Maltera da horren adibide argia. Maltak 400.000 biztanle ditu eta bertan maltera eta ingelesa dira hizkuntza ofizialak, hortaz, seguru aski maltarrek ingelesez jarduteko arazorik ez lukete izan behar. Hala ere, maltera Europar Batasuneko hizkuntza ofiziala da.¹⁰⁹

Hizkuntza ofizial edo lanerako hizkuntzen eta itunetako hizkuntzen bereizketak indarra galdu zuen irlandarak hizkuntza ofizial titulua eskuratzearekin bat, hizkuntza berberak osatzen baitituzte orduz geroztik ofizial edo lanerakoek eta itunetakoek zerrendak.¹¹⁰

Bestalde, agerikoa da, 24 hizkuntza horiek ez direla egun Europar Batasunean hitz egiten diren ohiturazko hizkuntza historiko guztiak. Egun bi herenek ez dute erakundeen aitortzen jasotzen. Egoera honek, Kontseiluak hizkuntza batzuei lanerako hizkuntza edo hizkuntza ofizial izaera onartzeko eta besteei ukatzeko erabilitako irizpideen inguruko zalantzak zabaltzen ditu.¹¹¹

Kontseiluaren Erregelamenduaren hitzaurrean Kontseiluak jarraitutako irizpidea aipatzen da, esanez hizkuntzetako bakoitza estatu kide batean edo gehiagotan hizkuntza ofizial gisara onartuta dagoela. Nahiko argi geratzen da bai hitzaurrea bai “estatu kide batean edo gehiagotan hizkuntza ofizial dena” esapidea nahiko anbiguoak direla, esapide honek bi interpretazio mota izan baititzake: alde batetik, estatu kide bat edo batzuetako eremu osoan ofizialak diren hizkuntzei erreferentzia egiten ari dela uler daiteke; eta bestetik, estatu kide bat edo batzuetako eremu konkretuetan ofizial izaera dutenei ere erreferentzia egiten diela uler daiteke. Hala eta guztiz ere, dakigun bezala, Kontseiluak lanerako hizkuntza edo hizkuntza ofizial izaera soilik onartu die estatu kide oso baten eremuan ofizial diren hizkuntzei edota estatu kide baten administrazio zentrolean ofizial diren hizkuntzei. Hau dela eta, estatu kide baten lurralde eremu batean ofizialak diren baina instituzio zentraletan aitortzen ez duten euskara, gaztelania edota

¹⁰⁸ *Ibid.*, 103. orr.

¹⁰⁹ ARZOZ SANTISTEBAN, X., *loc. cit.*

¹¹⁰ MILIAN I MASSANA, A., *op. cit.*, 97. orr.

¹¹¹ *Ibid.*, 95. orr.

galegoa bezalako hizkuntzek ez dute lanerako hizkuntza edo hizkuntza ofizial estatusa eskuratu.¹¹²

Dena den, irizpide orokorrak salbuespen bat du: luxenburgerarena (*Lëtzeburgesch*). Beronek estatu kide baten eremu osoan ofizial izaera du baina ez da hizkuntza ofizial edo lanerako hizkuntzen multzoan sartzen. Salbuespen honen arrazoia, Luxenburgo, hots, estatu sortzaileetako bat Europar Erkidegoetan sartu zenean, luxenburgerak bertan ofizial izaera ez izatea da. Egun, Luxenburgok oraindik ez du luxenburgerari izaera hori emateko eskatu.¹¹³

Estatu osoan ofizialak diren edo estatuko administrazio zentrolean ofizialak direnen aldeko interpretazioak, alegia, “estatu hizkuntzei” soilik atea ireki izanak eskusioak eman izana ekarri zuen. Erabaki legala baino erabaki politikoa da, eta estatu-kideetako hizkuntza ofizial guztiak Europar Batasuneko hizkuntza ofizial ez izatea dakar, nahiz eta, horietako batzuk (euskarak eta katalanak, esaterako) Batasuneko hizkuntza ofizial batzuek baino hiztun gehiago izan. Batasuneko hizkuntza testuingurua garatzerako orduan izandako malgutasun falta horrek “estatu hizkuntza” ez diren horiek estatu barruko onarpenaz aparte erabat alboratuta geratzea ekarri du. Lehengo adibideari berriro ekinez, euskara eta katalana ofizialak dira beren eremuan baina eremu horretan ezarritako Europar Batasuneko erakundeetan ezin dira erabili (Europako Lan Segurtasun eta Osasun Agentzia, eta Europa Komisioko Ordezkaritza Bilbon eta Bartzelonan daude hurrenez hurren). Oinarrizko Eskubideen Europako Gutunak hiritarrek beren administrazioekin beren hizkuntzan harremanak mantentzeko duten eskubidea aitortzen du, eta eskubide honen garrantzia kontuan hartuta, zaila da ulertzea zergatik aplikatzen den horren modu murriztailean.¹¹⁴

1/58 Erregelamenduak hizkuntza ofizialak eta lanerako hizkuntzak zerrendatzeaz gain, estatus honen efektuak ere arautzen ditu.¹¹⁵

1. Estatu kide edo norbanakoek instituzioei idatziak bidaltzean edozein hizkuntza ofizialetan egin ahalko dute eta instituzioen erantzuna hizkuntza horretan bertan

¹¹² MILIAN I MASSANA, A., *op. cit.*, 96. orr.

¹¹³ MILIAN I MASSANA, A., *op. cit.*, 98. orr.

¹¹⁴ URRUTIA, I. eta LASAGABASTER, I., *op.cit.* 482 eta hurr.

¹¹⁵ MILIAN I MASSANA, A., *op. cit.*, 97. orr.

jaso beharko dute (2. artikulua). Horrez gain, instituzioak direnean estatu kide bati edo bere jurisdikziopeko norbanako bati idatziren bat bidaltzen diotenak, estatu kide horretako hizkuntzan egingo dute (3. artikulua).¹¹⁶

2. 4. artikulua araberaren erregelamendu, zuzentarau eta irismen orokorreko testu guztiak hizkuntza ofizial guztietara itzuli beharko dira. 5. artikuluari jarraiki gauza bera egin beharko da Aldizkari Ofizialarekin.¹¹⁷

Europar Batasuneko hizkuntza ofizialei buruz hitz egiten dugunean, erakunde funtzionamenduari dagokionez, bi maila bereizi behar ditugu: barne eta kanpoko funtzionamendua.¹¹⁸ Barne funtzionamenduari dagokionez, hizkuntzen arteko berdintasun politikoaren printzipioan oinarritzen da.¹¹⁹ Hala ere, kanpo arloa da hiritarren gain eragin handiena suposatzen duena.¹²⁰

Hizkuntza ofizialak lanerako hizkuntzak diren heinean, hizkuntza horiek instituzioen barne funtzionamendurako erabili beharko dira. Lanerako hogeita lau hizkuntza egon arren, gehien bat ingelesa eta neurri txikiagoan frantsesa dira erabiltzen direnak.¹²¹ Lehen garaietan, frantsesa eta alemana erabiltzen ziren arren, 20. mendearen azken hamarkadan ingelesak aurrea hartu zien eta orduaz geroztik ingelesa gailendu da. Hala eta guztiz ere, oraindik frantsesak Europar Batasuneko Justizia Auzitegian nagusitasuna mantentzen jarraitzen du.¹²²

4.1.3. Barne estatus ofiziala duten hizkuntzak

Bestalde, barne estatus ofiziala duten hizkuntzak aipatzean, Europar Batasuna Itunaren 55.2 artikuluan aipatzen denari egiten diogu erreferentzia, non Ituna estatu kideek zehaztutako beste hizkuntzetara itzultzeko aukera egongo dela zehazten den. Horretarako, hizkuntza horiek Konstituzio ordenamenduaren arabera maila ofiziala izan beharko dute estatu kide horren eremu osoan edo zati batean. Kasu bakoitzean, hori

¹¹⁶ FABEIRO HIDALGO, P., "Un estudio jurídico del régimen lingüístico de las instituciones de la Unión Europea" *Revista de Lengua i Dret*, 44. zenb., 2005, 67. orr.

¹¹⁷ *Ibid.*

¹¹⁸ ARZOZ SANTISTEBAN, X., *op.cit.*, 72. orr.

¹¹⁹ URRUTIA, I. eta LASAGABASTER, I., *loc. cit.*

¹²⁰ ARZOZ SANTISTEBAN, X., *loc. cit.*

¹²¹ MILIAN I MASSANA, A., *loc.cit.*

¹²² ARZOZ SANTISTEBAN, X., *loc. cit.*

burutzea dagokion estatu-kideak itzulpen horien kopia ziurtatuak bidaliko ditu Kontseiluaren artxiboetara bertan gorde daitezen.¹²³

55 artikulua bigarren atal hori Lisboako Itunean txertatu zen berrikuntza bat da. Lisboako Itunarekin txertatu arren aldaketa hori, ideia porrot egin zuen Europar Konstituziotik zetorren. Europar Batasuneko erakundeetan erabiltzen ziren hizkuntzen testuinguruaren berrorientazio saiakera batean, Konstituzio Europarraren zirriborroak hizkuntza europarren sistema hierarkikoan bigarren maila bat sortzea aurreikusten zuen. Bigarren maila hori Konstituzioaren zirriborroko azken eztabaida pausoak ematen ari zirenean zehaztu zen, IV-448 artikuluari bigarren paragrafo bat gehitu zitzaionean, honela, Ituna barne estatus ofiziala zuten hizkuntzetara itzultzea ahalbidetuz. Erdibideko kategoria hori ezartzeko 2005eko Ekainaren 13ko Kontseiluaren Ondorioztapenak erabili ziren.¹²⁴ Horretarako tresna juridiko hori erabili izanak, bigarren maila honek funtsean duen apaltasuna agerian uzten du, ondorioztapen horretan interes politikodun ideia interesgarri batzuk aurki daitezkeen arren, agiriak erregimen berriaren ezaugarri eta baldintzen zerrenda ematera mugatzen baita.¹²⁵ Gainera, ondorioztapen horiek Europar Batasuneko hizkuntza ofizial edo lanerako hizkuntzez gain, estatu-kide baten barnean onarpena duten edota hizkuntza nazional bezala beraien erabilera onartuta duten hizkuntzei bakarrik eragiten die. Hortaz, honen menpe geratuko lirateke euskara, galegoa eta katalana, baita Danimarkan faroera, Luxenburgon luxenburgera, Finlandian samiera, eta beste hainbat. Aldiz, barne estatus edo babesik ez duten hizkuntzak kanpo geratuko lirateke; bretoiara eta okzitaniara kasu. Hizkuntza horiek erabiltzeko aukera, dagokion estatu-kideak Kontseiluarekin (edota beste erakunde europarren batek) sina dezakeen administrazio hitzarmenaren menpe egongo da. Jarduera horretatik eratorritako zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak, hitzarmena sinatzen duen estatu-kideari kobratuko zaizkio. Euskaren, katalanaren eta galegoaren kasuan hainbat hitzarmen daude sinatuta Kontseiluarekin, Batzordearekin eta Eskualdeetako Komitearekin. Parlamentu Europarrari dagokionez, Europar Parlamentuko mahaiak, 2006ko apirilaren 26ean baztertu zuen hizkuntza horiek erabiltzeko aukera. Azken finean, ezeztapen horren atzean arrazoi politikoak daudela

¹²³ ARZOZ SANTISTEBAN, X., *op.cit.*, 77. orr.

¹²⁴ URRUTIA, I. eta LASAGABASTER, I., *op. cit.*, 484. orr.

¹²⁵ ARZOZ SANTISTEBAN, X., *loc.cit.*

nabarmena da, erabilera horretatik sortutako gastuak ordaintzea Espainiaren eginbidea zatekeelako.¹²⁶

Barne estatus ofiziala duten hizkuntzei dagokienez, Europar Batasuneko Itunaren 55.2 artikulua eta Ondorioztapenen aplikazio eremua berbera izango da, hau da, estatu kide bateko lurralde osoan edo zati batean ofizialak diren hizkuntzei bakarrik eragingo die erregimen berriak.¹²⁷ Dena den, hizkuntza horiek izango dituzten aukerak mugatuak dira eta eragin praktikoa oso txikia dute. Hiru erabilera ezberdin daude baimenduta:¹²⁸

- *Europako Parlamentuak eta Kontseiluak elkarrekin sortutako egintzak itzultzea.* Ez dira egintza guztiak itzuliko, maila eta edukiaren arabera Europar Batasuneko egintza garrantzitsuenak soilik itzuliko dira. Kasuan kasu erantzukizun hori duen estatu-kideko gobernuak Parlamentura eta Kontseilura itzulpenak bidaliko ditu bertan artxiba daitezzen. Hala eta guztiz ere, itzulpen horiek ez dute balio juridikorik izango, informatzeko helburu soili izango dute.¹²⁹
- *Europar Batasuneko erakundearen bilkuretan beren hizkuntzan mintzatzeko eskubidea.* Erakunde eta organoetako bilkuretan kideek aipatutako hizkuntzetan hitz egiteko aukera izango dute, baldin eta, eskaria alde aurretik luzatzen bada eta horretarako baliabideak baldin badaude.¹³⁰
- *Europar Batasuneko erakundeekin idatzizko harremanak.* Aipatutako hizkuntzetako hitzunei Europar Batasunari zuzenduta idatzizko eskaerak beren hizkuntzan bidali eta jasotzeko eskubidea izango dute, baina hau zeharkako bide konplexua besterik ez da.¹³¹ Herritarrak Batasuneko erakundeari bidalitako eskaera estatu-kideak aukeratutako organo batek estatu-kide horretako hizkuntza ofizial edo lanerako hizkuntzara itzuli eta Batasuneko erakundeari bidaliko dio. Erakundeak estatu-kideko organoari estatu-kideko hizkuntza ofizialean

¹²⁶ URRUTIA, I. eta LASAGABASTER, I., *loc.cit.*

¹²⁷ *Ibid.*

¹²⁸ URRUTIA, I. eta LASAGABASTER, I., *loc.cit.*

¹²⁹ ARZOZ SANTISTEBAN, X., *op.cit.*, 78. orr.

¹³⁰ *Ibid.*

¹³¹ *Ibid.*

erantzungo dio, honek itzulpena burutu eta herritarrari bere hizkuntzan erantzun diezaion.¹³²

4.1.4. Europako Parlamentuaren kasu aipagarria

Europako Parlamentua Batasuneko herritarrek beren interesak defendatzeko aukeratzen dutenez, hau da, herritarrek bozka bitartez aukeratzen duten Batasuneko erakunde bakarra denez¹³³ duen hizkuntza erregimena aztertzea ez da gaizki egongo.

Ia ziurtasun osoz esan daiteke Europako Parlamentua dela hizkuntza ofizialen eta lanerako hizkuntzen berdintasun erregimena era zorrotzenez betetzen duen erakundea.¹³⁴ Parlamentarioak herritarren bozken bidez hautatuak izateak bereziki zailtzen du horiek denek beste hizkuntzetan moldatzeko gaitasun nahikoa izatea. Horregatik, Europako Parlamentua hizkuntza aniztasun printzipioari atxikitzeak euro-parlamentari guztien iritziak entzun eta gainontzekoek ulertu ahal izatearekin lotu beharra dago.¹³⁵ Gainera, Parlamentuak hizkuntza aniztasunarekiko duen errespetua Europar Batasuneko neurtzaile demokratiko gisa erabili izan da.¹³⁶

Europako Parlamentuaren hizkuntza erregimena, bere barne erregelamenduko 158. artikuluan zehazten da.

Artikulu honetan, bi hizkuntza erregimen ezberdin ikus daitezke. Bata, Europako Parlamentuaren deliberazio publikoetarako erabiltzen dena eta bestea batzorde eta ordezkartzen lanerako erabiltzen dena. Gauzak horrela, erabateko hizkuntza aniztasuna Europako Parlamentuaren osoko bilkurretan aplikatzen da eta hizkuntza aniztasun hori ez da horren zorrotza izaten batzorde eta ordezkartzen bileretan. Izan ere, batzordekide eta ordezkariak dira itzulpen zerbitzua eskatzeaz arduratzen direnak. Hortaz, horietako inork itzulpen zerbitzurik eskatuko ez balu, konponbide komunikatiboren bat aurkitu beharko litzateke bilera aurrera eraman ahal izateko. Konponbide hori erabateko hizkuntza aniztasuna izan daiteke (partaide guztiek aktiboki edo pasiboki beste

¹³² URRUTIA, I. eta LASAGABASTER, I., *op.cit.*, 485. orr.

¹³³ FERNANDEZ VITORES, D., *op.cit.*, 110. orr.

¹³⁴ FABEIRO HIDALGO, P., *op.cit.*, 80. orr.

¹³⁵ FERNANDEZ VITORES, D., *loc.cit.*

¹³⁶ FERNANDEZ VITORES, D., (*apud.* LABRIE)

herrialdeetako hizkuntzak erabiltzearen aldeko autua egingo balute), edo guztiz kontrakoa, hots, erabateko elebakartasuna, bilera aurrera eramateko hizkuntza bakarra aukeratuko balitz. Bestalde, aipatutako 158 artikulua laugarren atalean esaten da batzorde eta ordezkartzentzako ezarritako hizkuntza erregimena aldatu egin ahalko dela salbuespenezko egoeretan inguruabarrek hala eskatuz gero. Beste hitz batzuetan esanda, hizkuntza erregimen mugatuagoa ezartzea are gehiago justifikatzen du.¹³⁷

Europako Parlamentuak Hizkuntza Aniztasunaren inguruan emandako Jarrera Kodean lehen artikuluko bigarren atalean esaten da, Europako Parlamentuak hizkuntza aniztasunarentzat dituen hizkuntza baliabideak erabateko hizkuntza aniztasun kontrolatuaren (“multilingüismo integral controlado”) arabera kudeatuko direla. Era honetan, Europako Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denari jarraituz, parlamentariak aukeratzen duten hizkuntza ofizialean mintzatzeko duten eskubidea bermatuko da. Honela, gehitzen da hizkuntza aniztasunera bideratutako baliabideak erabiltzaileen benetako beharren eta hizkuntza zerbitzuetako eskaeren planifikazio egokienaren arabera egin beharko dela.¹³⁸

Parlamentuaren esanetan, erabateko hizkuntza aniztasun kontrolatua da hizkuntzen berdintasuna mantendu eta hortik eratorritako gastuak muga zentzudunen barnean mantentzeko modu bakarra. Erabateko hizkuntza aniztasunak esan nahi du Batasuneko hizkuntza guztietatik hizkuntza guztietara interpretazio zerbitzua eskainiko dela. Interpretazio hori osoko bilkurei eta Parlamentuko organoen, batzordeen eta talde politikoen bilerei aplikatuko zaizkie. Dena den, diputatu gutxik parte hartzen duten saioetan edo Parlamentuaren erabakirik eskatzen ez duten saioetan, hartu beharreko formulak malguagoak izan behar direla adierazi zuen Parlamentuak.¹³⁹ Azken finean, era laburtuan azaltzerik baldin badago hizkuntza aniztasun kontrolatua zer den, hizkuntza guztietatik guztitara itzultzeko aukera/eskubidea egongo dela, baina erabilgarritasunak bultzatuta formula malguagoak erabili ahalko direla hainbat kasutan.

¹³⁷ FERNANDEZ VITORES, D., *op. cit.*, 111 orr.

¹³⁸ EUROPAKO PARLAMENTUA (2008) – “Código de Conducta del Multilingüismo”, Mahaiak 2008ko azaroaren 17an onartua. 1. artikulua, 2. atala

¹³⁹ FABEIRO HIDALGO, P., *op.cit.*, 80. orr.

4.2. Hizkuntza eskubideak Europar Batasunean

4.2.1. Hizkuntza Eskubideak Elkarteetako eta Batasuneko printzipio orokor bezala

Harrigarria dirudien arren, ez Zuzenbide Komunitarioak ez Europar Batasunak (Maastrichten 1992an sortu zenetik) ez dute orain dela gutxira arte oinarritzko eskubideak jasotzen dituen testurik izan. 2000. urteko abenduan Nizan Oinarritzko Eskubideen Europar Batasuneko Gutuna sinatu zen arte Europar Batasunak ez zuen oinarritzko eskubideen inguruko testu propiorik izan. Alabaina, Gutunak eraginkortasun juridikoa lortzeko 2009ra arte itxaron behar izan genuen. Dena den, hori aurrerago aztertuko dugun gaia da.¹⁴⁰

Egia da jatorritzko edo sorrerako zuzenbide komunitarioan (hots, Europar Erkidegoak sortzen dituzten nazioarteko itunetan edo Europar Batasuna sortzen duen Maastrichtekoan) eskubide garrantzitsuak barneratzen direla, baina Europar Batasuneko estatu kideetan Konstituzio demokratikoetan barneratutako eskubide zibil eta politikoen aipamenik ez da egiten.¹⁴¹

Europar Batasunak edo zuzenbide komunitarioak oinarritzko eskubideak 2009ko abendura arte deklarazio formal eta esplizitu batean aipatu ez izanak ez du esan nahi ordenamendu juridiko horrek orain arte eskubide horiek aitortu eta babestu ez dituenik. Tratatuetan ez ziren espresuki jasotzen, Luxenburgon finkatutako Europar Erkidegoetako Justizia Auzitegiak ematen zituen ebazpen juridikzionalen bitartez aurreikusi eta babesten zituen. Orain dela berrogei urte, Auzitegi honek ondorioztatu zuen oinarritzko eskubidean Itunetan jasota egon ez arren, eskubide horiek zuzenbide komunitarioaren printzipio orokor gisa tratatuak izan behar zirela. Printzipio orokor izaera hori estatu kideetako ohitura tradizional komunitatik eta estatu kide horiek giza eskubideen defentsari lotuta sinatutako nazioarteko hitzarmenetatik ondorioztatzen da. Jatorri juridikzionalerako babes horrek indarrean dirau oraindik, nahiz eta, Oinarritzko Eskubideen Europar Batasuneko Gutunak eraginkortasun juridiko loteslea eskuratu.¹⁴²

¹⁴⁰ UGARTEMENDIA, J.I., "La tutela judicial de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea: evolución y características generales", *Curso Cátedra Jean Monnet*, 2015, 9.orr.

¹⁴¹ *Ibid.*

¹⁴² *Ibid.*

Laburbilduz esan daiteke Europar Batasuneko oinarrizko eskubideek juridikoki lotesleak diren bi motatako babesak jaso dutela. Alde batetik, duela 40 urte hasitako prozesuari jarraituz oinarrizko eskubideek Europar Batasuneko printzipio orokor gisa jaso duten babesak. Bestetik, 2000. urtean Nizan sinatutako Oinarrizko Eskubideen Europar Batasuneko Gutunak 2009an Tratuen balio juridikoa ezarri zitzaionean lortu zuena.¹⁴³

A. Oinarrizko Eskubideak printzipio orokor bezala

Oinarrizko eskubideak aipatzen zituen katalogo bat egon ez arren, Europar Erkidegoetako Justizia Auzitegiak, 60. hamarkadan hasi eta urteak aurrera joan ahala, hasiera batean oinarrizko eskubideekiko zuen urruntasuna gainditu eta horien babes eta bermerako jarduera eraman zuen aurrera. Jarduera pretoriarra (hots, jurisprudenziala) izan zen, oinarrizko eskubideei zuzenbide komunitarioko oinarrizko eskubide izaera eman ziena. Hau esanda, gogoratu behar dugu printzipio orokorrak Europar Erkidegoetako Justizia Auzitegiak zehaztu eta estatu guztiek errespetatu beharrekoak direla.¹⁴⁴

Oinarrizko eskubideen babes eta jurisdikzionalaren sistema komunitarioa prozesu mailakatu eta heterogeneoaren ostean etorri zen. Esan bezala, prozesua ez zen uniforme izan eta ondo bereiztutako bi fase ezberdindu daitezke. Lehenak izaera inhibizionista zuen, eta bigarrenak, izaera babeslea.¹⁴⁵

Hasierako unean, Luxenburgoko Auzitegiak giza eskubideen babesaren gainean entzungorrena egiteko joera hartu zuen. Dena den, 60. hamarkadaren amaieran Auzitegiak aurkako zentzua hartu eta alor honen babesaren inguruan kontrako joera hartzeari ekin zion oinarrizko eskubideen babesak bere gain hartuz.¹⁴⁶

Auzitegiak hartutako norabide aldaketari hasiera eman zion sententzia *Stauder* kasukoa izan zen, non Auzitegiak ebatzi zuen pertsonaren oinarrizko eskubideak zuzenbide komunitarioko printzipio orokorretan jasota daudela. Hala eta guztiz ere, sententzia honetan ez zen zehazten zeintzuk izango ziren oinarrizko eskubide horiek ezta zein babes maila jaso behar zuten ere. Batetik, 1970eko abenduan emandako *Internationale*

¹⁴³ *Ibid.*

¹⁴⁴ *Ibid.*

¹⁴⁵ *Ibid.*

¹⁴⁶ *Ibid.*, 11. orr.

Handelsgesellschaft sententzian aipatzen da estatu kideetako ohitura konstituzional komunak oinarritzko eskubideen iturri izango direla. Bestetik, 1974ko maiatzean emandako *Nold* sententzian, ohitura konstituzional komunak lehen inspirazio iturri gisa berrestez gain, estatuak parte hartu duten edo sinatu dituzten oinarritzko eskubideen babeserako nazioarteko hitzarmenak aipatzen ditu gai honen bigarren inspirazio iturri gisa. Pixkanaka-pixkanaka eta aipatueta iturrietan oinarrituz Luxenburgoko Auzitegiko Jurisprudenzia (egun, Europar Batasuneko Justizia Auzitegia) oinarritzko eskubide multzoa aipatzen joango da; besteak beste, prozesu justu eta tutela judicial eraginkorrerako eskubidea, xedapen penalen atzeraeragin ezinezkotasuna, etxebizitzaren bortxa ezinezkotasuna, etab.¹⁴⁷

B. Hizkuntza Eskubideak printzipio orokor bezala

Esan bezala, Europar Batasuneko Zuzenbideak kultura eta hizkuntza aniztasunaren errespetuaren inguruko aipamen zehatzak egin aurretik, Justizia Auzitegiak, hizkuntza politika nazionalari atea ireki zion, hots, estatu-kide bateko hizkuntza baten defentsa eta promoziorako politika publikoa onargarritzat jotzen zuen. Arazo hori aztertzeko oinarritzko irizpideak *Groener* Sententziaren bitartez (C-379/87) ezarri ziren.¹⁴⁸

Hizkuntza aniztasunarekin lotutako argudioak interes orokorreko premiazko arrazoiei (“*como razón imperativa de interes general*”) dagokienez, Justizia Auzitegiaren jarrera une askotan zalantzazkoa izan arren, azken adierazpenek Auzitegiak gai honen inguruan jarrera sendoa hartu izana agerian uzten du.¹⁴⁹

(1) Groener kasua

Dublinen egoitza duen Irlandako *High Court* delakoak epaiketa aurreko hiru arazo (“*cuestiones prejudiciales*”) planteatu zituen Europako Ekonomia Erkidegoa sortzen zuten Tratatuaren 48. artikuluko 3. atalaren eta Kontseiluaren 1612/68 Erregelamenduaren (Erkidego barneko langileen zirkulazio askatasunaren ingurukoa) aplikazioaren inguruan. Hiru arazo horiek planteatzearen helburua barne arau bat

¹⁴⁷ *Ibid.*, 12. orr. eta hurr.

¹⁴⁸ ARZOZ SANTISTEBAN, X., “La política lingüística de los estados miembros y el derecho de la Unión Europea” *Cívitas – Revista española de Derecho Europeo*, 52. zenb., 2014, 33. orr. eta hurr.

¹⁴⁹ URRUTIA, I., “Defensa y promoción de las lenguas oficiales como razón imperiosa de interés general de la Unión Europea a la luz de la Jurisprudencia del TJCE”, *RVAP*, 83. zenb., 2009, 238. orr.

xedapen horiekin bateragarria zen ala ez zehaztea zen. Barne arau horren arabera, irakaskuntza profesionaletako zentro publikoetan lanaldi osorako irakasle iraunkor postua lortu ahal izateko irlandararen ezagutza beharrezkoa zen.¹⁵⁰

Sententzia honetan, Herbeheretako nazionalitatea duen Groener anderearen eta Irlandako Hezkuntza Ministroaren eta Dublingo Irakaskuntza Komite Profesionalaren arteko gatazka aztertzen da. Groener anderearen lanaldi osoko irakasle iraunkor izendapena ezezten zuen erresoluzio ukatzaileak eman zion hasiera honako kasu honi, izan ere, Groener andereak irlandaraz zuen ezagutza aztertzeraz bideratutako froga ez zuen gainditu.¹⁵¹

1974ko irailaren 1etik indarrean dagoen V7 memorandumaren arabera, irakaskuntzako alor ezberdinetan, Komiteak norbait lanaldi osorako irakasle iraunkor izendatu ahal izateko pertsona horrek Ceard-Teastas Gaeilge delakoa (irlanderaren ezagutza titulua) edo Ministerioak emandako titulu baliokidea behar du. Memorandumean bertan esaten denaren arabera, irlandar nazionalitatea ez dutenei eskakizun hau ez galdatzeko aukera izango du Ministroak baldin eta postu horretarako formakuntza egokia duen beste kandidaturik ez baldin badago.¹⁵²

Bestalde, 1979an Ministroak emandako 28/79 zirkularrari jarraiki, irakasle laguntzaile edo lehen mailako irakasle maila bete ahal izateko, Ceard-Teastas Gaeilge delakoa duten eta behar bezala formatuta dauden pertsonen eman beharko zaie lehentasuna. Titulu hori ez duten pertsonen irlandera maila aztertuko duen ahozko azterketa bat egiteko aukera izango dute. Lanaldi osorako postu iraunkor edo aldi-baterako batean izendatua izan ahal izateko azterketa hori gainditzea derrigorrezkoa izango da. Hala ere, zirkular honek V7 memorandumaren xedapenek indarrean jarraituko dutela azpimarratzen du, alegia, kualifikazio nahikorik ez duen beste kandidaturik ez baldin badago ez dela beharrezkoa izango hizkuntza eskakizunak betetzea.¹⁵³

1982ko irailean Dublingo College of Marketing and Desingek Groener anderea lanaldi partzialeko arteko irakasle kontratua egin zion. Zentro honen administrazioaz Dublingo

¹⁵⁰ JAE, 28-11-1989, *Groener* (C-379/87), 1. atala

¹⁵¹ JAE, 28-11-1989, *Groener* (C-379/87), 2. atala

¹⁵² JAE, 28-11-1989, *Groener* (C-379/87), 4. atala

¹⁵³ JAE, 28-11-1989, *Groener* (C-379/87), 5. atala

Irakaskuntza Komite Profesionala arduratzen zen. 1984ko uztailean, demandatzaileak zentro horrek berak eskaintzen zuen lanaldi osorako irakasle iraunkor postu baterako aurkeztu zuen bere burua. Ceard-Teastas Gaeilge delakoa ez zuenez, Groener andereak onartu ez zitzaion dispentsa eskatu zuen. Dispentsaren ukapenaren oinarrian beharrezko kualifikazioa zuten beste hautagai batzuk egotea zegoen. Dena den, Ministroak interesatuaren izendapenarekin bat etorriko zela adierazi zuen baldin eta aurrez aipatutako azterketa gainditzen baldin bazuen.¹⁵⁴

Lau asteko kurtso bat egin ostean, azterketara aurkeztu eta Groener andereak ez zuen azterketa gainditu. Horren ostean 1985-86 kurtsoan lanaldi osorako kontratatzeko edo hizkuntza eskakizunetatik salbuetsia izateko emakumean egindako gestio guztiek ez zuten emaitza positiborik izan.¹⁵⁵

Gauzak horrela, Groener andereak prozedura kontentzioso administratiboa (judicial review) martxan jarri zuen High Courtean Dublingo Irakaskuntza Komite Profesionalaren eta Ministroaren aurka, argudiatuz V7 memorandumak eta 18/79 zirkularrak ezarritako betebeharrak Europako Ekonomia Erkidegoa sortzen zuen Itunaren 48. artikulua eta 1612/68 erregelamendua urratzen zituztela.¹⁵⁶

Groener kasuaren berezitasuna da gatazka sortzen duen hizkuntza nazionala irlandera dela. Irlandera hizkuntza nazionala eta Irlandako lehen hizkuntza ofiziala izan arren, Irlandako biztanleriaren gehiengoak hitz egiten ez duen hizkuntza bat dela esan daiteke.¹⁵⁷ Hori dela eta, azken urteetan zehar Irlandako Gobernuak erabili duen politika hizkuntza mantentzera ez ezik, hizkuntzaren erabilera zabaltzera ere zuzendu da.¹⁵⁸ Hortaz, ondoriozta daiteke hizkuntza baten gutxitu izaera edo erabilera urria ez dela oztopo izango honen alde bultzatzen diren hizkuntza politikentzat, beti ere, bere hizkuntza ofizial edo nazional izaera Konstituziotik zuzenean eratoritzen bada. Ondorioz, estatu kide batek bere hizkuntza ofizialetako bat edo batzuk defendatu edo sustatzeko izan dezakeen helburua interes orokorreko premiazko arrazoa da, beraz,

¹⁵⁴ JAE, 28-11-1989, *Groener* (C-379/87), 6. atala

¹⁵⁵ JAE, 28-11-1989, *Groener* (C-379/87), 7-8 atalak

¹⁵⁶ JAE, 28-11-1989, *Groener* (C-379/87), 9. atala

¹⁵⁷ ARZOZ SANTISTEBAN, X., *op. cit.*, 34. orr.

¹⁵⁸ JAE, 28-11-1989, *Groener* (C-379/87), 18. atala

arrazoituta egon daitezke Itunak bermatutako oinarrizko ekonomia askatasunei ezartzen zaizkien mugak.¹⁵⁹

Hala eta guztiz ere, era honetako politika bat aurrera eramateko hartzen diren neurriak ezingo dira inoiz jarraitzen duten helburuarekiko desproporzionatuak izan, eta horien aplikazio neurriek ezin izango dute beste estatu kideetako nazionalitatea duten herritarrentzat diskriminaziorik suposatu.¹⁶⁰

Ondorioz, irakaskuntza profesionaleko zentro publikoetan lanaldi osoko irakasle iraunkor postuaren izaerak hizkuntza ezagutzea exigitzea justifika dezake, beti ere, hizkuntza eskakizun horiek lehenengo hizkuntza ofiziala den hizkuntza nazional baten promozio politika baten barnean txertatzen baldin badira eta eskakizun horiek proportzionaltasun eta diskriminazio ezaren printzipioak errespetatzen baldin badituzte.¹⁶¹

Groener kasutik atera daitezkeen ondorioak zalantzazkoak dira. Alde batetik, estatu kideek hizkuntza materia arautzeko duten eskubidea aurreikusten du, baita hizkuntza nazional bat babesteko helburuarekin Batasuneko oinarrizko askatasun ekonomikoak mugatzeko aukera. Bestetik, ostera, Auzitegiak berak hizkuntza eskakizunek Batasuneko oinarrizko askatasunei eragiten dieten ala ez zehazteko jurisdikzioa izango duela azpimarratzen du. Oinarrizko askatasunei eragiten dieten edozein politikaren gisara estatu kideen hizkuntza politika ere Justizia Auzitegiak kontrolatu ahalko du.¹⁶²

Azaldu dugun bezala ulertzen da estatu kide batek aukera izango duela hizkuntza nazional, ofizial edo konstituzionalak (gutxituak izan daitezkeenak) babesteko bertako hezkuntza erakundeetan beste estatu kide bateko herritar batek hitz egiten duen hizkuntza baten kaltetan. Honek hezkuntza alorrean hizkuntza batzuk babestu arren, babes hori estatu-kideen sustengua jasotzen duten hizkuntzek soilik jasoko dute.¹⁶³

(2) Hain kasua

¹⁵⁹ ARZOZ SANTISTEBAN, X., *loc. cit.*

¹⁶⁰ JAE, 28-11-1989, *Groener* (C-379/87), 19. atala

¹⁶¹ JAE, 28-11-1989, *Groener* (C-379/87), 24. atala

¹⁶² ARZOZ SANTISTEBAN, X., *loc. cit.*

¹⁶³ AHMED, T., "Promotion of minority linguistic rights at the domestic level" *The impact of EU Law on minority rights* (Modern Studies in European Law, 27. zenb.), Hart Publishing, Oxford, 2011, 166. orr.

Alemania Errepublikaren barne arau batek beste estatu kideetako odontologoek jarduteko behar zuten onespina, bertako hizkuntzaren ezagutza jakin bat izatearen menpe uzten zuten.¹⁶⁴ Kasu honetan, demandatzailea Solomone Haim da, italiar nazionalitatea duen eta bere odontologo titulua 1946an Istanbulgo Unibertsitatean eskuratu zuen herritar bat. 1981ean Alemaniako Errepublikaren odontologo gisa jardura pribatuak aurrera eramateko baimena jaso zuen. 1982an Belgikako agintariak Haim jaunaren odontologia tituluaren baliokidetzak onartu zuten. Ondoren, Bruselako Gaixotasunen Aseguru Kaja batean egin zuen lan. 1988an Haim jaunak Ipar Renaniako Gaixotasunen Aseguruetako Mutualitateetan izena emandako Odontologoaren Elkartearen aurrean Odontologo Erregistroan izena ematea eskatu zuen, honela, bertako Gaixotasunen Aseguru Kaja batean lan egiteko.¹⁶⁵ Aipaturiko Erakundeak Haim jaunari erregistroa ukatzeko emandako arrazoi bat gizon honek hizkuntza eskakizunak ez betetzea izan zen.

Kasu honetan, Auzitegiak ebatzi zuen odontologoei herrialde horretan ezarri eta jardura aurrera eramateko ezartzen zaizkien hizkuntza betebeharrak interes orokorreko premiazko arrazoiak direla bezeroekiko komunikazioaren fidagarritasuna betetzeko.¹⁶⁶

Auzitegiak ez zuen aurretik inoiz horren garbi esan askatasunak mugatzen dituzten hizkuntza eskakizunak interes orokorreko premiazko arrazoi bezala justifikatu daitezkeela. Dena den, kontuan hartu behar da kasu horretan Auzitegiak azpimarratutako argudioa odontologo eta gaixoaren arteko komunikazioaren bermea dela. Horrela, ezbaian geratzen da ea premiazko arrazoi hizkuntza bera den edo komunikazio fidagarritasunaren bidez adierazten den hizkuntzaren informazio funtzioa.¹⁶⁷

(3) United Pan-Europe Communications Belgium kasua

¹⁶⁴ JAE, 4-07-2000, *Haim* (C-424/97), 1. atala

¹⁶⁵ JAE, 4-07-2000, *Haim* (C-424/97), 7-10 atalak

¹⁶⁶ URRUTIA, I., *op.cit.*, 240. orr.

¹⁶⁷ URRUTIA, I., *loc.cit.*

Erabaki aurrejudizial eskaeraren objektua Europar Erkidegoa sortzen duen Itunaren 49 eta 86 artikuluen interpretazioa da, azken hau, 82. artikuluekin erlazionatu behar delarik.¹⁶⁸

Eskaera hori belgikar estatuak ikus-entzunezko programen kable banaketa ibiltzen diren hainbat enpresarekin [United Pan-Europe Communications Belgium SA (UPC), Coditel Brabant SPRL, la Scociété Intercommunale pour la Diffusion de la Télévision (Brutélé) eta Wolu TV ASBL] zituen auzien harira egin zen. Auzi horien zergatia Brusela Hiriburua eremu elebidunean Belgikako Estatuak enpresa horiei ezartzen zien obligazioa zen. Araudiaren arabera, enpresa horiek eremu elebidun horretan behartuta zeuden Estatuak hautatutako ikus-entzunezko organismo publikoek zabalduko telebista programa jakin batzuk ematera.¹⁶⁹

Justizia Auzitegiak ebazten du Brusela Hiriburua eremu elebidunean jarduten duten kable banatzaileei Belgikako Estatuak hautatutako organismo pribatuek egindako saioak emateko obligazioa ezartzen dien Belgikako barne arau eztabaidagarria onargarria dela, bere barnean kultura objektua dagoelako. Araudi horrekin eremu elebidunean bizi diren nederlandar hiztunei aukera eman nahi zaie Komunitate Flandestarrarekin hizkuntza eta kultura lotura duten saioak ikusi ahal izateko, eta aldi berean aukera bera eman nahi zaie eremu horretan bizi diren frantses hiztunei Komunitate Frankofonoarekin hizkuntza eta kultura lotura duten saioak ikusi ditzaten horiek ere.¹⁷⁰

Auzitegiaren aburuz, honelako araudien bitartez lortzen dena da eremu horretako ikus-entzuleek inolako mugarik ez izatea bertako eta estatuko informazioa jaso eta beraien kultura ordezkatzan duten saioak ikusi ahal izateko.¹⁷¹

Bestalde, horrelako neurriak hartzea aniztasuna mantentzeko kultura politika baten barnean dagoela ulertzen denez eta politika hori adierazpen askatasuna bezalako oinarritzko eskubide bati hertsiki loturik dagoenez, ulertzen da estatu-kideetako agintariak hautemate ahalmen handia dutela. Hala ere, *Groener* kasuan bezalaxe, politika horiek garatzeko hartutako neurri zehatzak ezin izango dira

¹⁶⁸ JAE, 13-12-2007, *United Pan-Europe Communications Belgium (C-250/06)*, 1. atala

¹⁶⁹ JAE, 13-12-2007, *United Pan-Europe Communications Belgium (C-250/06)*, 2. atala

¹⁷⁰ ARZOZ SANTISTEBAN, X., *op. cit.*, 35. orr.

¹⁷¹ JAE, 13-12-2007, *United Pan-Europe Communications Belgium (C-250/06)*, 43. atala

desproporzionatuak izan eta ezin izango dute diskriminaziorik sortu beste estatu-kide bateko nazionalitatea duten herritarrentzat.¹⁷²

Zerbitzu prestazio askatasunari ezartzen zaizkion mugak justifikatuak izateko bi baldintza ezartzen ditu Auzitegiak.¹⁷³ Batetik, politika nazional horrek interes orokorreko helburu bat izan beharko du, telebista saio eskaintzaren izaera anitza mantentzea adibidez.¹⁷⁴ Kasu honetan, eremu elebidun bateko telebista saioetan hizkuntza aniztasuna mantentzea, kultura politika baten baitan interpretatuz interes orokorreko helburua dela ulertzen da. Gainera, kasu honetan, aurretik izandako beste kasu batzuetan ez bezala, askatasun komunitarioen muga justifikatzen duen interes orokorreko premiazko arrazoia ez da kultura aniztasunaren bermea soilik, zehazki, hizkuntza aniztasunaren berme ere bada.¹⁷⁵ Bestetik, politika hori ezin izango da jarraitzen duen helburuarekiko desproporzionatua izan; beraz, aplikazio moduak aurretiaz ezagututako irizpide objektibo eta ez diskriminatzaileetan funtsatutako prozedura garden baten parte izan behar dira.¹⁷⁶

4.2.2. Hizkuntza Eskubideak Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean

Tratatuen isiltasunaren eta Justizia Auzitegiak oinarrizko eskubideak babesteko hartutako jarreraren aurrean, agerian geratu zen deklarazio formal baten bidez oinarrizko eskubideen babes komunitarioa jasotzeko zuten beharra. Eremu komunitarioan oinarrizko eskubideen gainean zegoen kezka 1992ko otsailaren 7an Maastrichten sinatutako Europar Batasuneko Itunak hartu zuen bere gain eta oinarrizko eskubideekiko errespetua positibizatu zuen. Hala ere, azpimarratzekoa da Europar Batasuneko Itunean egiten zaion aipamen horrek ez duela inolako oinarrizko eskubideren babes konstituzionalizatu, ezta Auzitegiaren babes jurisprudentzialaren bitartez eman zitzaionaz aparteko babes sakonagorik eman. Aurrerapen konstituzional

¹⁷² JAE, 13-12-2007, *United Pan-Europe Communications Belgium (C-250/06)*, 44. atala

¹⁷³ ARZOZ SANTISTEBAN, X., *loc.cit.*

¹⁷⁴ JAE, 13-12-2007, *United Pan-Europe Communications Belgium (C-250/06)*, 51. atala

¹⁷⁵ URRUTIA, I., *loc.cit.*, 244. orr.

¹⁷⁶ JAE, 13-12-2007, *United Pan-Europe Communications Belgium (C-250/06)*, 51. atala

eta jurisprudenzialak egon arren, oinarrizko eskubideak aipatzen zituen testu propioa behar zenaren ustea bateratua zen.¹⁷⁷

Gauzak horrela, erakunde europarrek Batasunean aurreikusten ziren oinarrizko eskubideei aipamen zehatza egiten zien Gutuna eratzeari ekin zioten. Enkargua Kontseilu Europarrak luzatu zuen 1999ko ekainaren 3 eta 4ean eginiko bere bileran eta Konbentzio erredaktatzailea urte bereko irailaren 21ean eratu zen. Nizako Kontseiluak 2000. urteko abenduaren 7an onartu zuen Gutuna. Balio loteslerik gabe burutu zen onarpena.¹⁷⁸

Gutunak lehenengo aldiz eremu komunitarioan bizi diren biztanle europarrek dituzten eskubide zibil, politiko, ekonomiko eta sozialak testu batean biltzea lortu zuen, eskubide horiek sistematikoki antolatuz. Gainera, estatu kideen ohitura tradizional komunitatik eta nazioarteko hitzarmen komunitatik eratorriko eskubideak berresten ditu. Alegia, beste hitz batzuetan esanda, babes jurisprudenziala bermatzen du.¹⁷⁹

Aipatu berri dugun bezala onarpena egin zenean ez zitzaion indar loteslerik eman. Beranduago, Europar Batasuneko Itun Konstituziogilearen bigarren zatian Gutuna txertatu zen, honela “Europako Konstituzio” horrek berak zuen indar loteslea emateko helburuarekin. Konstituzioak indar hori izan zezan, estatu bakoitzaren berrespena (Parlamentu Nazionalaren edo erreferendumaren bidez) beharrezkoa zen. Baina Frantzia eta Holandaren ezetzek, Konstituzioa eta ondorioz Gutuna indarrean ez sartzeari eta indar juridiko loteslerik ez eskuratzea ekarri zuten.¹⁸⁰

2007ko abenduan sinatu zen Lisboako Itunaren bitartez ordura arte indarrean zeuden itunak erreformatu ziren. 2009ko abenduan amaitu zen Itunaren berrespen prozesua eta

¹⁷⁷ UGARTEMENDIA, J.I., *op.cit.*, 15. orr. eta hurr.

¹⁷⁸ MUÑOZ MACHADO, S., “Los tres niveles de garantías de los derechos fundamentales en la Unión Europea: problemas de articulación”, *Derecho Comunitario Europeo*, 44. zenb., 2015, 205. orr.

¹⁷⁹ GOMEZ-REINO Y CARNOTA, E., “La Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea”, *Dereito*, 22. zenb., 2013, 189. orr.

¹⁸⁰ UGARTEMENDIA, J.I., *op.cit.*, 19. orr.

horrekin batera Gutunak horrenbeste grinarekin desiratutako lotesletasun juridikoa bereganatu zuen.¹⁸¹

A. Oinarrizko Eskubideak Gutunean

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna hitzaurre batez, 54 artikulua eta 7 tituluz (Duintasuna, Askatasunak, Berdintasuna, Solidaritatea, Herritartasuna, Justizia eta Xedapen Orokorrak) osatutako Deklarazio edo *Bill of Rights* delakoa da.¹⁸²

Gutunaren ezaugarri nagusia oinarrizko eskubideen katalogo oso eta eguneratua duela da. Oinarrizko eskubide klasikoak aipatzeaz gain, eskubide berri eta berriztatzaileentzat badago tokia Gutunean. Iturri ezberdinetan inspiratzen da Gutuna, besteak beste, Giza Eskubideen Europako Itunean, Gutun Europar Sozialean (1966), oinarrizko eskubide sozialen Gutun Komunitarioan (1989), Konstituzio nazionaletan edota Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuan (diskriminazio aurkako klausulak kasu).¹⁸³

Bestalde, Gutuneko prezeptu bakoitzak *Praesidiumak* (hots, Konbentzioko Mahaia) emandako azalpen batzuk ditu, artikulua bakoitzaren interpretaziorako oso erabilgarriak direnak. Azalpen horiek funtsean artikulua bakoitzaren inspirazio iturriak aipatzen dituzte.¹⁸⁴

Badaude Gutunaren hainbat ezaugarri aipamena behar dutenak.¹⁸⁵

- 51. artikulua dioen moduan, Gutunean aurreikusitako eskubideek ez dituzte erakunde komunitarioak bakarrik lotzen, estatuetakoko agintari publikoak ere lotzen dituzte baldin eta hauek Europar Batasuneko Zuzenbidea aplikatzen ari baldin badira.
- Gutunak printzipio eta eskubideak jasotzen ditu.
- Lege bidez eta forma justifikatuan eginez gero, Gutunean aurreikusten diren eskubideak mugatzeko aukera izan badago. Hala ere, ezin izango dira bertan

¹⁸¹ *Ibid.*

¹⁸² *Ibid.*, 20. orr.

¹⁸³ *Ibid.*

¹⁸⁴ GOMEZ-REINO Y CARNOTA, E., *op.cit.*, 191. orr.

¹⁸⁵ UGARTEMENDIA, J.I., *op.cit.*, 191. orr.

aurreikusitako eskubideak Giza Eskubideen Europako Itunean jasotakoak baino modu murrizkorragoan interpretatu.

B. Hizkuntza Eskubideak Gutunean

Estatu kide bakoitzaren nazio nortasunari zor zaion errespetua lehenengoz 1992ko Maastrichteko Itunean aipatu arren, jarduera komunitarioa bere sorreratik gidatu duen printzipioetako bat dela esan daiteke. Nazio nortasun horren baitan hizkuntza eta kultura aberastasuna sartzen direnez, hizkuntza aniztasuna eremu komunitarioan presente egon dela baieztatu daiteke.¹⁸⁶

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 21 eta 22 artikuluek dira hizkuntza eskubideei erreferentzia egiten dietenak.¹⁸⁷ 22. artikuluari dagokionez, artikulua hori nahiko berandu agertu zen Gutunaren prestakuntza prozesuan, lehen Konbentzioko lanak ixteko bi aste besterik falta ez zirenean. *Praesidiumak*, hots, Konbentzioko organo legegileak, egindako lehen eskubideen zerrendan ez zen azaltzen. 2000. urteko Irailaren 14ko CHARTE 4470/00 CONVENT 47 dokumentuan proposatu zuen *Praesidiumak* aipatutako 22. artikulua hori. Momentu horretan eginiko proposamenak ez zuen aldaketarik jasan Gutunaren osatze prozesua amaitu eta Konbentzioak oniritzia eman arte. Estatu-kideek testua onartu eta beranduago Europar Batasuneko erakundeek aldarrikatu egin zuten.¹⁸⁸

22. artikulua Konbentzioaren azken egunetan txertatu izana ez zen kasualitatea izan. Gutunean gutxiengoaren eskubideak aintzatesten zituen artikulua bat barneratzea lortzeko garrantzia handia izan zuen Konbentzioko kide askok bai idatziz bai ahoz gutxiengoaren babes/berdintasunaren aldeko xedapen baten beharra aldarrikatzea. Hala ere, *Praesidiumak* ez zituen kontuan hartu Konbentzioko hainbat kidek plazaratutako ideia zehatzak. Ezezkoa jaso arren Konbentzioko kide ugari berriz ekin zioten eskaera hori lantzeari. Egoera hori 2000. urteko irailaren 11 eta 12an egindako Konbentzioaren 16.

¹⁸⁶ MANGAS MARTIN, A., "Diversidad cultural, religiosa y lingüística", *Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea. Comentario artículo por artículo.*, Fundación BBVA, Bilbo, 2008, 410. orr.

¹⁸⁷ VACCA, A., *op.cit.*, 111. orr.

¹⁸⁸ ARZOZ SANTISTEBAN, X., "El respeto de la diversidad lingüística a través del artículo 22 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea", *Civitas -Revista española de Derecho Europeo*, 43. zenb., 2012, 191.orr.

saioan geratu zen agerian, non, parlamentu nazionaletako ordezkarien arteko koordinazio lanak aurrera eramane ziren. Gutunaren III. Titulua beren parte-hartzeetan aipatu zuten Konbentzioko kide gehienek, gutxiengoaren babeserako klausula bat barneratzearen beharrezkotasuna defendatuz. Finlandiako, Erresuma Batuko, Austriako, Belgikako, Herbeheretako eta Italiako ordezkariak gutxiengoaren eskubideen aintzatespenaren alde azaldu ziren. Kide bakarra, Hubert Haenel frantziarra soilik azaldu zen aurka, horretarako hiru arrazoi emanaz: gutxiengoaren parte izatea 27.2 artikuluan aurreikusten den eskubide txiki pertsonala dela; estatuak barne antolamenduan berezitasun nazionalak kontuan hartuz arau gehigarriak eman ditzaketela; gutxiengoaren eskubideak 50.2 artikuluko klausula horizontalean aurreikusita zeudela.¹⁸⁹

Koordinazio saio horien ostean, bi egunetara, *Praesidiumak* 22. artikulua biltzen zuen eta gero definitiboa izango zen bertsio berria bidali zuen. Esan daiteke 22. artikulua hori beraz, gutxiengoentzako sistema konplexua osatzearen aldekoak zirenen eta horren aurka zeudenen proposamenen nahasketa dela.¹⁹⁰

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 22. artikulua honela geratu zen "*The Union shall respect cultural, religious and linguistic diversity.*".¹⁹¹

22. artikulua azalpenetan bertan ezartzen da Europar Batasuneko Tratatuko 6. artikuluan eta Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuko 167. artikuluko 1 eta 4 artikuluetan oinarritzen dela 22. artikulua hori. Azken bi atal hauek kulturaren ingurukoak dira. Lehenengoan esaten da Batasunak estatu kideetako kulturen loratzearen alde egin beharko duela, horretarako nazio eta erregio aniztasuna errespetatuz eta ondare komunari garrantzi berezia emanaz. Laugarrenean, ostera, Batasunak Tratatuko beste xedapenen batzuen baitan burututako jardueretan kultura ezaugarriak kontuan hartu beharko dituela azpimarratzen da, honela kultura aniztasuna errespetatu eta sustatzeko.¹⁹² Horretaz gain, hizkuntza eta kultura aniztasuna Europar Batasuneko Tratatuko 3.3 artikuluan ere aipatzen dira. Bestalde, eliza eta erakunde ez

¹⁸⁹ *Ibid.*, 191-194 orr.

¹⁹⁰ *Ibid.*, 194. orr.

¹⁹¹ 2000/C 364/01, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna, Niza, 2000ko abenduaren 18a

¹⁹² C 83/49, Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatua, Erroma, 1957ko martxoaren 25a

konfesionalen inguruko estatutuaren inguruko Amsterdameko Ituneko azken aktako 11. deklarazioan ere oinarritzen da.¹⁹³

22. artikulua horren inguruan Praesidiumak emandako azalpen horiek kultura eta erlijio aniztasunean oinarritzen dira. Hizkuntza aniztasunaren inguruko aipamenak oso gainekoak dira. Horri lotuta, aipagarria da Komunitate Europarra sortzen duen Ituneko 149. artikulua (Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuko 165. artikulua ordezkatzen duena) ez aipatzea, hori baita Oinarrizko Eskubideen Europa Batasuneko Itunera gehien gerturatzeko dena.¹⁹⁴

Artikulu horretan hizkuntza aniztasunarekin batera, kultura eta erlijio askatasuna aipatzen dira. Hortaz, ez zaio artikulu oso bat eskaintzen eskubide honi, beste birekin partekatzen du. Hala ere, komeni da gogoratzea autore batzuen esanetan esanguratsua dela aniztasunaren gaiari artikulu banandu bat eskaini izana, izan ere, Nizako Gutunaren lehen erredakzioan diskriminazioaren debekuaren prezeptu orokorraren baitan jasoa zegoen jada.¹⁹⁵ Askorentzat errepikakorra izan eta Europar Batasuneko Tratatuen baitan zentzu handiegirik izan ez arren (aniztasun kultural eta linguistikoari erreferentzia Tratatuko 3.3 artikulua egiten diolako) Kartak eta Lisboako tratatuak ekarri zuten berritasunen bat; aniztasuna lortu beharreko helburu edo misio bilakatzea edota giza eskubide bezala tratatu komunitario batean lehen aldiz aipatua izatea.¹⁹⁶

Hala ere, Batasunak hartzen duen betebeharrak bakarrik errespetatzearena da, bere jarraitzearekin aniztasuna ez kaltetzearena. Alegia, ez du obligazio positiborik hartzen aniztasuna babesteko eta aniztasunaren urratze bat eman ez dadin ekintza batzuk aurrera eramane behar izateko.¹⁹⁷ Horregatik, autore batzuen esanetan aurreikuspen ahul xamarra da artikulu honekin biltzen duena, izan ere, badirudi ez diela inolako eskubiderik ematen ez norbanako ez taldeei.¹⁹⁸

¹⁹³ ALONSO GARCIA, R. y SARMIENTO, D., "Diversidad cultural, religiosa y lingüística", *La Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea. Explicaciones, concordancias, jurisprudencia*, Civitas, Cizur Menor, 2007, 225. orr..

¹⁹⁴ ARZOZ SANTISTEBAN, X., *op.cit.*, 196 orr. eta hurr.

¹⁹⁵ MANGAS MARTIN, A., *loc. cit.*

¹⁹⁶ *Ibid.*

¹⁹⁷ *Ibid.*

¹⁹⁸ ARZOZ SANTISTEBAN, X., (*Apud.* WALLACE C. y SHAW J.)

5. Ondorioak

Lan honen helburua estatuz gaindiko Europar hizkuntza eskubideek duten aintzatespen edo aurreikuspena azaltzen saiatzea izan da. Horretarako, hizkuntzen eraentza juridikoaren eta hizkuntzen eta oinarritzko eskubideen aipamen orokor batzuk burutu ditut hasieran eta ondoren; alde batetik, Europako Kontseiluaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren baitan burututako jarduna aztertu dut, bestetik, Europar Batasunaren eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren barnean emandako aurrerapausoak azaltzeari ekin diot.

Lehenik eta behin, iruditzen zait nahiko argi geratu dela hizkuntza eskubideak beste izaera bateko eskubideekin etengabeko hartu-emanen dauden eskubideak direla, alegia, ezin ditugula autonomo bezala kalifikatu. Bai jurisprudenzian baita testuetan egiten diren aipamenak aztertu ditugun gehientsuenetan beste izaera bateko eskubide bati lotuta azaldu dira.

Lan hau burutzerako orduan izan dudana sentsazioa izan da hizkuntza eskubideek zuzeneko eta zeharkako aipamen ugari izan arren, ezin aipa daitekeela eskubide horiek duten nukleo gogor zehatzik. Hizkuntza eskubideen bizkarrezur edo nukleo gogor hori ez aurkitzearen arrazoia akaso beraien izaera dela medio aipamen zuzenak egitea zaila izatea izan liteke (eta horregatik aipamen oso generikoak edo beste eskubide batzuei lotuak egin behar izatea) edo agian beste arrazoi batzuk egon litezke atzean, ekonomikoak adibidez, eleaniztasun sistema hori mantentzeak Europar Batasunaren aurrekontu osoaren %1a eskatzen baitu .

Dena den, nire uste apalean, hizkuntza eskubideen izaera konplexua horren atzean egoteaz gain, hizkuntza eskubideen alorreko erabakien konponente politikoak eragin handia duelakoan nago. Alegia, hizkuntza eskubideek testu normatiboetan (ez horrenbeste jurisprudenzian) dituzten aipamenak horren lausoak eta zehaztugabeak izatearen atzean dagoen arrazoi nagusia borondate politiko falta dela uste dut. Borondate politiko falta hori agerian geratu da testu horien erredakzioan jardun duten estatuek testuak berretsi ez dituztenean edota zuzenean sinatu ez dituztenean. Azken finean, Europar Batasunaren eta orokorrean Europaren garapen demokratikorako erabateko hizkuntza aniztasuna onartzeak duen garrantziaz kontziente direla estatu kide gehienak, baina norberak eskubide horiek bere eremuan onartu eta betearazteko orduan arazoak sortzen direla.

Europar Erkidegoen eta Europako Kontseiluaren hasiera kontuan hartuta aurrerapen handi eta garrantzitsuak burutu direla ukaezina den arren, etorkizunean benetako borondate politikoarekin jardun ezkeror garai hartatik egundaino egindako ekarpenak adina ekarpen egiteko aukera dago oraindik.

6. Bibliografía

AHMED, T., "Promotion of minority linguistic rights at the domestic level" *The impact of EU Law on minority rights* (Modern Studies in European Law, 27. zenb.), Hart Publishing, Oxford, 2011

ALONSO GARCIA, R. y SARMIENTO, D., "Diversidad cultural, religiosa y lingüística", *La Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea. Explicaciones, concordancias, jurisprudencia*, Civitas, Cizur Menor, 2007, 223-228. orr.

ARZOZ SANTISTEBAN, X., "Europar Batasuna, eskualdeak eta hizkuntza-eskubideak" *Eleria*, 21. zenb. (Eskualdea, Europar Batasuneko "Kide" berriaren inguruabarrak), 2011, 69-79. orr.

- ARZOZ SANTISTEBAN, X., "El respeto de la diversidad lingüística a través del artículo 22 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea", *Civitas -Revista española de Derecho Europeo*, 43. zenb., 2012, 185-226. orr.
- ARZOZ SANTISTEBAN, X., "La política lingüística de los estados miembros y el derecho de la Unión Europea" *Civitas – Revista española de Derecho Europeo*, 52. zenb., 2014, 11-44. orr.

CASADEVALL, J., "Breve introducción al Consejo de Europa", *El Convenio Europeo de Derechos Humanos, el Tribunal de Estrasburgo y su jurisprudencia*, Tirant lo Blanc, Valencia, 2012, 25-29. orr.

DIAZ BARRADO, C.M., "La protección de las minorías nacionales por el Consejo de Europa", *Anuario de la Facultad de Derecho*, 17. zenb., 1999, 125-170. orr.

DIEZ DE VELASCO, M., "Las organizaciones de cooperación con fines generales; El Consejo de Europa", *Las organizaciones internacionales*, Tecnos, Madrid, 2008

FABEIRO HIDALGO, P., "Un estudio jurídico del régimen lingüístico de las instituciones de la Unión Europea" *Revista de Llengua i Dret*, 44. zenb., 2005, 49-99. orr.

FERNANDEZ VITORES, D., "El régimen lingüístico del Parlamento Europeo y la inclusión de Las Lenguas Regionales y Minoritarias", *El Parlamento Europeo: ¿Esta vez es diferente? (European Inklings (EUi) V)* IVAP, Oñati, 2015, 102-127. orr.

GRAMSTAD, S., "1998-2008 arteko esperientzia: Gutunaren ezartzea. Gutunaren segimendua egiteko mekanismoa: ikuspuntu praktiko bat", *Eremu urriko hizkuntzen babesa Europan: hamarkada berri baterantz*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2011, 27-32. orr.

GOMEZ-REINO Y CARNOTA, E., "La Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea", *Dereito*, 22. zenb., 2013

HARRIS, D.J., O'BOYLE, M., BATES, E.P., BUCKELY, C.M., "The European Convention on Human Rights on context", *Law of the European Convention on Human Rights*, Oxford University Press, Oxford, 2014

IZU BELLOSO, M.J., "Lengua y derechos fundamentales", *El regimen lingüístico de la Comunidad Foral de Navarra*, Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeko Fundazioa, Donostia-San Sebastian, 2013

LEACH, P., "Introduction – The Council of Europe and the European Convention on Human Rights", *Taking a case to the European Court on Human Rights*, Oxford University Press, Oxford, 2011, 6. orr.

LEZERTUA RODRIGUEZ, M., "Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren aurretik. Giza Eskubideen Europako Hitzarmena eta eremu urriko hizkuntzak babesteko beharra", *Eremu urriko hizkuntzen babesa Europan: hamarkada berri baterantz*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2011, 11-25. orr.

LÓPEZ RAMÓN, F., "Teoría jurídica de las cosas públicas", *Revista de Administración Pública*, 186. zenb., 2011, 9-51 orr.

MAGALDI, N., “Els drets lingüístics a la jurisprudència del Tribunal Europeu de Drets Humans”, *Revista de Llengua i Dret*, 57. zenb., 2012, 123-162. orr.

MANGAS MARTIN, A., “Diversidad cultural, religiosa y lingüística”, *Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea. Comentario artículo por artículo.* , Fundación BBVA, Bilbo, 2008, 409-413. orr.

MILIAN I MASSANA, A., “Recognition of the Basque Language in the EU” *The Legal Status of the Basque Language Today: One Language, Three Administrations, Seven Different Geographies and a Diaspora*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2008, 93-114 orr.

MUÑOZ MACHADO, S., “Los tres niveles de garantías de los derechos fundamentales en la Unión Europea: problemas de articulación”, *Derecho Comunitario Europeo*, 44. zenb., 2015

NIEVA FENOLLI, J., “La invocació directa de la Carta europea de les llengües regionals o minoritàries als tribunals”, *Revista de Llengua i Dret*, 52. zenb, 2009, 183-204. orr.

PETSCHEN VERDAGUER, S., “Entre la política y el derecho: La Carta europea de las lenguas regionales o minoritarias”, *Revista de Estudios Politicos*, 66. zenb, 1989, 127-144. orr.

POGGESCHI, G., “The Use of Regional and Minority Languages in teh Public Administration and the undertaking of article 10 of the Europaean Charter for Regional or Minority Languages”, *Revista de Llengua i Dret*, 57. zenb., 2012, 163-205. orr.

RUIZ VIEYTEZ, E.J., “Minorias, inmigración y democracia en Europa”, *Derechos Humanos* , Tirant Lo Blanch, Valencia, 2006, **DDDD**

STRUBELL I TRUETA, M., “Política lingüística i Administració”, *Revista de Llengua i Dret*, 2. zenb., 1983, 3-10. orr.

TRIFUNOVSKA, S., “1998-2008 arteko esperientzia: Gutuna ezartzea. Gutuna berrestearen problemak eta ikuspuntuak. Baltikoko estatuen kasua”, *Eremu urriko*

hizkuntzen babesa Europan: hamarkada berri baterantz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2011, 63-78. orr.

UGARTEMENDIA, J.I., “La tutela judicial de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea: evolución y características generales”, *Curso Cátedra Jean Monnet*, 2015

URRUTIA, I., “Defensa y promoción de las lenguas oficiales como razón imperiosa de interés general de la Unión Europea a la luz de la Jurisprudencia del TJCE”, *RVAP*, 83. zenb., 2009, 227-264. orr.

URRUTIA, I. eta LASAGABASTER, I., “Language Rights as a General Principle of Community Law”, *German Law Journal*, 8.bol. 5. zenb., 2007, 479-500. orr.

VACCA, A., “A comparative approach between the Council of Europe Treatis and the European Union framework in the legal protection of minority languages”, *Revista de Llengua i Dret*, 53. zenb., 2010, 111.-136 orr.

VALDIBIESO BLANCO, M., "Política lingüística, norma lingüística y terminología en el plano supranacional" *Tonos digital: Revista electrónica de estudios filológicos*, 16. zenb., 2008

7. Jurisprudenzia

GIZA ESKUBIDEEN EUROPAKO AUZITEGIA

- GEEA, 19-09-1994, *Kamasinski v. Austria* (9783/82)
- GEEA, 18-10-2006, *Hermi v. Italy* (18114/02)
- GEEA, 06-12-2007, *Johansson v. Finland* (10163/02)
- GEEA, 07-12-2004, *Kuharec alias Kuhareca v. Latvia* (71557/01)
- GEEA, 07-12-2004, *Mentzen v. Latvia* (71074/01)
- GEEA, 08-11-2001, *Siskina and Siskins v. Latvia* (59727/00)
- GEEA, 31-03-2008, *Bulgakov v. Ukraine* (59894/00)
- GEEA, 09-02-1967, *Case relating to certain aspects of the laws on the use of language education in Belgium v. Belgium* (1474/62; 1677/62; 1692/92; 1769/63; 1994/63; 2126/64)
- GEEA, 02-03-1987, *Mathieu Mohin and Clearfayt v. Belgium* (9267/81)
- GEEA, 09-04-2002, *Podkolzina v. Latvia* (46726/99)
- GEEA, 10-05-2001, *Cyprus v. Turkey* (25781/94)

JUSTIZIA AUZITEGIA

- JAE, 28-11-1989, *Groener* (C-379/87)
- JAE, 13-12-2007, *United Pan-Europe Communications Belgium* (C-250/06)
- JAE, 4-07-2000, *Haim* (C-424/97)